

Itziar URBIOLA *Lanbide Orientazio Zerbitzuko Teknikaria*



Lan poltsak, lana bilatzeko modu berria

Bera, Baztan eta Lesakako udalek lan poltsak sortu dituzte, langabetuek lana topatzeko bertzeko aukera bat izan dezaten. Uda-

letxe hauetara joaten den Itziar Urbiola teknikariak egiten du lantegi eta langabezia daudenen arteko bitartekari lana



Mainer SOBRINO:
Baztango Gazte Asanbladakoa

Hamazazpi urteko elizondar hau duela ia bi urte martxan den Gazte Asanbladako partaide da. 'Hire ezinegona antolatu' lelopean prestatu duten kanpainaren berri eman digu elkarrizketan. **3**

27 Kultura: Bertsolari Txapelketa Nagusia Beran azaroaren 16an

Final laurdeneko saioak dagoneko jokatu direlarik, heldu den igandean hasiko dira ezagutzen finalera pasatuko diren zortzi bertsolarien izenak.

28 Kirolak: Beti Gazteko jubenilak

Bertzalde, Donato Larretxea nagusitu zen Nafarroako Aizkolari Txapelketan.

GEHIGARRIA:
Donezteko Feriak

Azaroaren 14an, ortziralean, ospatuko dira.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!



MUEBLES A METS

mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60
Tfnoa: 948-630537
BERA



NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK



*25 urte zuen
zerbitzura*



Ongi etorria Passat berrira.

25 urte zure zerbitzura
SAMPI ARAGON

Garai berriak.
Modelo berriak.

Leitzako errepidea
© 450354 / 450759

DONEZTEBE

DATUAK.....

❖ Hamazazpi urte ditu, Baztango Gazte Asanbladako kidea da eta Elizondoko lanbide eskolan batxillergoa ikasten du egun.

❖ Berak eta bertze gazte zenbaitek Baztandarren Biltzarreko Gazte Saila utzi eta Gazte Asanblada sortu zuten duela ia bi urte, talde orokorretatik independente izan nahian, eta gauzak egiten segitzeko asmoz.

❖ Baztango jendea mugitze aldera egin dituzte orainarteko saiakera gehientsuenak, eta «Hire Ezinegona Antolatu» kanpaina hau ere zentzu horretan bideratu dute.

TESTUA:
ASIER G.
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

✉ Mainer SOBRINO Elizondarra

“Drogen inguruan manipulazio haundia egiten da gazteen artean”

ZEIN DUZUE «HIRE EZINEGONA ANTOLATU» KANPAINAKO EGITARRAUA?

Momentuz urriaren 31n ETT eta Zabor Kontratuari buruzko hitzaldi bat eman du Julen Mitxelorenak, eta azaroaren 8an bertze hitzaldi bat izanen da arratsaldeko 7etan Baztandarrenen, oraingoan drogen ingurukoa. Askagintzako norbait etorriko da Iruñetik.

Gero azaroaren 14an bideo emanaldi bat dago -Erratzuko Zubipunta ostatuan seguraski-. «La chispa que prende la mecha» filmea botako dugu. Eta azkenik azaroak 22an kontzertu mundiala izanen da Abastos arkupeetan, Pierrak, PiLT eta Skalarriak taldeekin.

BADAGO GAIREN BAT EKITALDI HAUEKIN ESPRESKI LANDU NAHI IZAN DUZUENA?

Normalean gazteok erabiltzen ditugun gaiak, batez ere. Zabor Kontratuena denok begibistan dugun gaia da, adibidez, eta drogena ere iduritsu, urte batzuetatik honat aldaketa nabaritu dugulako drogen inguruan. Gure ustez asko komentatu behar den gaia da hau, gazteen artean manipulazio haundia egiten delako. Badago droga tipo pila bat, eta dena bere neu-



«Nik askotan izaten dut ezinegona, baina jendeak orokorrean, ez».

rrian ona bada ere, nik uste hemen ez dela bere neurrian hartzen bai-zik eta gehiegizkoa, eta ikusten duzu nola batzuk ari diren hondatzen pixka bat.

Guk adituek emandako informazioa eskaini nahi dugu, bakoitzak bere inguruan erra-ten dena soilik dakielako. Hitzalditara berexiki jende gaztea agertzea

nahi dugu, ia kontzientziatzen den pixka bat. **NONDIK NORA IZEN HORI ZUEN KANPAINARENDAKO, EZINEGONA SOMATU AL DUZUE GAZTEEN ARTEAN?**

Ezinegona? Ba nik adibidez askotan izaten dut, baina jendeak orokorrean ez du, preziskiki. Izen hori aukeratu dugu ikusteko ia jendea mugitzen hasten den, hemen betikoak elkartzen garelako gauza guzietarako. Nik uste dut arazo pila bat dugula, eta denetaz pasatzen dugula.

ZENBAT DENBORA DARAMAKI MARTXAN BAZTANGO GAZTE ASANBLADAK?

Ia bi urtetara joanen da, eta 20-25 lagun egonen gara egun, Baztango herri guzietakoak.

Orain arte egin ditugun artean, kontzertuetara ateraldiak, mendietara, eta hitzaldi pila daude, baina batez ere arrakasta izaten dute Nafarroa Oinezarako autobusek. Hori harritzekoa da, aurtengoan 3 autobus bete dira, eta nik ez dakit nondik atera den jendea.

► «Badago droga tipo pila bat, eta dena bere neurrian ona bada ere, nik uste hemen ez dela bere neurrian hartzen baizik eta gehiegizkoa.»

Langabezian dagoenarentzat, nahitaezko baldintza izan ohi da INEMeko bulegoan izena ematea, lana topatu nahi badu behinipein. Horrekin batera, batzuk lantegiz lantegi ibiltzen dira, lanerako prest daudela erranez. Berriki, lan eske daudenentzat bertze aukera berri bat zabaldu da, momentuz, Bera, Baztan eta Lesakako Herriko Etxeetan: udal lan poltsak. Udaletxe hauetara joaten den teknikariak egiten du langabetuaren eta lantegiaren arteko bitartekari lana.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
AUTOR AROZENA



Itziar Urbiola, Cederna-Garalur erakundeak sortutako Lanbide Orientazio Zerbitzuko teknikaria da Baztan, Lesaka eta Berako udal lan poltsetaz arduratzen dena.

Lanbide Orientazio Zerbitzua udaberrian jarri zen martxan eta eskualdean bi bulego zabaldu zituen. Batetik, Leizalde, Sakana, Larraun eta Ultzama biltzen zituena eta Baztan-Bidasoa ingururako, bertzea. Baina mantso xamar zebilela ikusirik, bizkortzeko zerbaitegitea gogoratu zitzaion Itziar Urbiola, Baztan-Bidasoako teknikariari. Hortik sortu ziren udal lan poltsak. Berako Herriko Etxea izan zen aitzindaria, maiatza bukarako udal batzarrean aholkatez onartu baitzuen lan poltsaren sorrera. Ondotik, ekaina hasieran Baztan Balleko Etxean eta uztaila bukaeran Lesakako Herriko Etxean bertze horrenbertze egin zuten. «Modu honeta-

UDAL LAN POLTSAK

Lana bilatzeko bertze modu bat

ra Herriko Etxea enpleguaren sorreran tartean sartzen da eta, bertetik, jendeari eta enpresari, honelako erakunde bat gibelean dagoela somatuta, konfiantza edo segurtasun gehiago ematen dio» uste du Urbiolak. Bera eta Lesakaz gain, Bortzirietako bertze hiru herrietan ere zer-

bait egiteko asmoa dute, etorkizunera begira. Mainerrekan, berriz, ez dute lan poltsarik sortu, INEMen bulegoa hurbil baitute eta eskaintza berdintsua ematen duelako.

Lan poltsa honen berri emanez bandoak karrikartu dituzte udalek eta bortz langile baino gehiagoko en-

presei bisita pertsonalak egin ditie teknikariak. Harrera «oso ona» izan dela pentsatzen du teknikariak, «baina gero enpresek zerbitzu horren beharra somatu behar dute, bertzela...».

Geroztik 180 bat pertsona sartuak daude lan poltsa hauetan, 85 Baztanen, 73 Bidasoaldean eta gainera-

LANGABEZIA HERRIZ HERRI eta SEXUKA (96-XII)

Biztanleak*	Langabetuak	♂	♀
ARANTZA	730	20	14
ARANO	154	3	-
ARESO	310	11	-
BAZTAN	8.053	206	88
BEINTZA-LABAIEN	311	7	4
BERA	3.551	130	56
BERTIZARANA	676	46	14
DONAMARIA	369	15	4
DONEZTEBE	1.237	45	18
ELGORRIAGA	191	7	3
ERATSUN	195	5	5
ETXALAR	882	15	4
EZKURRA	265	8	5
GOIZUETA	949	36	-
IGANTZI	618	15	4
ITUREN	483	19	12
LEITZA	3.086	101	x
LESAKA	2.750	109	49
QITZ	172	7	5
SALDIAS	165	11	7
SUNBILLA	706	8	3
URDAZUBI	445	9	6
URROTZ	207	8	3
ZUBIETA	334	15	7
ZUGARRAMURDI	262	9	4

(*) Zuzenbidezko biztanleak

LANGABEZIA IKASKETEN ARABERA (96-XII)

BAZTAN-BIDASOA



LANGABEZIAREN BILAKAERA LEITZALDEAN

HERRIA	LANGABETUAK 96-VI-30	LANGABETUAK 97-VI-30
LEITZA	101	124
GOIZUETA	36	23
ARANO	3	1
ARESO	11	9

INEMetik bildutako datuak

LANAREN BANAKETA SEKTOREAREN* ARABERA


BAZTAN



Zerbitzu sektoreak du lehentasuna, indar handia duen nekazaritza handi baten aitzinetik. Egoera nahiko orekatua da, nahiz eta zerbitzu sektorea pixko bat gailendu. Hirugarren sektore honek, ezaugarri bereziak ditu, batez ere Urdazubi eta Zugarramurdi aldean:


- Batez ere udan egiten den lana.
- Turismoari zuzendua
- Ekonomikoki, pezeta eta liberaren arteko gorabeheret lotua.

BIDASOA (Malerreka-Bortzirikiak)



Bigarren sektorearen nagusitasuna nabaria da, batez ere metalgintzari dagokionean (% 39,3) eta nabarmenki Bortzirietan (langileen %45,9a horretan ari da). Bertze sektore garrantzitsuak produkzio metalikoa eta makineria da, Bertizaranan langileen erdia baino gehiago okupatzen duena. Malerrekan, eraikuntza sektoreak langileen %25,3a hartzen du. Bitxikeria bezala, hain eskualde industrializatua izanik, aipatu hirugarren sektore pribatuak zein indar gutti duen enpresei eskaintako zerbitzuari dagokionean (%4 eskas)

LEITZALDEA



Bigarren sektorean lan egiten duten pertsonen kopuru garrantzitsua azpimarratzekoa da, batez ere industrian eta eraikuntzan banatua. Industria nagusia papergintza (Sarrio) eta arte grafikoekin loturikoa da, bertan langileen %52,2 okupatzen baita. Bertze datu garrantzitsua, zera da, bigarren sektorean ari diren %22,8 eraikuntzan ari direla. Lehen sektoreari dagokionez, Leitza inguruan nekazaritzan ari diren kopurua txikiagoa da, hurbileko zonaldeetan (Larraun, adibidez) baino.

Oharrrak:

1. sektorea: Nekazaritza-abelzaintza
2. sektorea: Industria
3. sektorea: Zerbitzuak

(1991ko datuak)

koak Berako Toki-Ona institututik. Azken hau, esperientzia interesgarria iruditzen zaio Urbiolari, «heziketa zentroa, Herriko Etxea eta enpresaren arteko koordinazioa ematen baita».

«Momentuz, ez da kontratu finkorik egin»

Kontratuak egin egin ba-

dira ere —gehienak Bortzirietan—, ez dira finkoak izan, momentuz. Kasu batzuetan hamabortz egunerako, asteburuetan lan egiteko bertze batzuetan... Itziar Urbiolak onartzen duenez, «hemen inguruan jendeak elkar ezagutzen du eta ahoz-ahoz egiten dira lan harreman gehienak. Enpresek lan poltsara jotzen dutenean

bertze moduak huts egin ditelako da, lan baldintzak onenak ez direnaren seinale».

Bertze bi urtez zerbitzu hau eskaintzeko asmoa dago, baina hori, Itziarrek dioenaren arabera, «subentzioen menpe dago, Nafarroako Gobernua- ren kontua da».

Leitzaldean ere gisako zerbitzua eskaintzen du Pili Vi-

cente teknikaria, baina ez dago udalen esku. Lan poltsa bat sortu da, zerbitzuetik pasatzen diren edo Herriko Etxean kurrikuluma utzi duten langabetuekin. Lan poltsa hau Leitzaran, Larraun, Ultzama eta Sakanako enpresen esku dago, beraien lantegirako baliagarria den norbait kontratatu ahal izan dezaten. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi@encomix.es

e-mail:

ttipi@mail.sendanet.es

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-

goien. **Publizitatea:** Miren Kar-

nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

Arozena, Asier Gogorza, Joxe-

manuel Irigoien. **Administrazioa:**

Maia Goia. **Erredakzio taldea:**

Pello Apezetxea, Juainas Paul,

Kristina Boan, Bittori Telletxea.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena, Juana Mari

Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban

Sasi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-

orena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

este, Pablo Mendiburu, Joseba

Garabide, Alizia Olaizola, Mar-

riari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Kristina Boan.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

roa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

ier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

ttipi-ttapak ez du bere gain har-

ren derrigorrez, aldizkarian adie-

zitatiko erranen eta eritzien eran-

zuzunik.

Irakunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

an, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako Eus-

ara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

"Lan egin nahi duenak lana badu?"

Hirian lan, herrian lo, hori ote da etorkizuna?



Martine GOYETCHE
Saratarra

Joan den ekainean nere komertzial ikasketak bukatu ditut. Hiru

hilabetez saltzaile gisa aritu naiz Sarako denda batean. Orain bi aukera baditut: Euskal Herrietik kanpo joatea edo hemen egotea proposatzen didaten lana onartuz; horrek erran nahi du seguraski ez duela ezer ikustekorik izanen nere ikasketekin.

Nere aukera Euskal Herrian egotea da, edozein lanekin konformatuz. Noizbait baliatuko ote ditut nere ikasketak?

Nere inguruko jendea langile da bainan ikasketak bukatuta ez du berehala lana lortu. Jakin behar da iparraldeko egoera ekonomikoa arrunt berezia dela hegoaldekoari begiratuz. Industri gutti izanez, jende gehienak turismoa du diru iturri (zerbitzari, sukaldari, saltzaile eta abar, 6 edo 8 hilabetez kontratuekin dira).

Garbi da Saran lan aukerak mugatuak direla. Horregatik herri-herrietar gehienak laborariak eta ofizialak salbu, inguruko hirietar (Donibane, Hendaia edo Baionara) lanera joaten dira.

Hirian lan, herrian lo, hori ote da etorkizuna?

Leitzako instituzioen babesa eta inplikazioa beharrezkoa da lanpostuak sortzeko



Lontxo ASTIBIA
Kooperatibako langilea

Lan munduaren egoera, orokorrean, nahiko txarra da Leitzan. Orain

dela 15-20 urtetik honat ez zaio inportantziarik eman lanpostuak sortzeko medioak jartzeari. Sarrario fabrika izanik ardatza, jendea ez zen ohartu lanpostuak sortze aldetik antzua zela aspalditik.

Administrazioak (Udalak bereziki) ez du inolako lan ekimenik bultzatu, eta gaur egun erabat serioa da gazteriaren ihesa, Iruñea eta Donostia aldera batez ere. Gure arduradunak diren hoi enizenak aipatuko nituzke; partiduetako hainbat jende, bankuetako hainbat arduradun, eliza, eskoletako zuzendariak, herri elkarteak... azken finean gutti hauen inplikazioa eta babesa beharrezkoa baita lanpostuak sortzeko. Nik ez dut gai horrekiko sentiberatasunik somatzen instituzioengan.

Herri bezala mantentzeko ere, nahiko beltz ikusten dut etorkizuna. Leitza ez da bere bitartekoak dituen herria; ez turismo, ez nekazaritza, komertzialki... industria aldetik jendeak soldata irabazteko bidea ez bada egiten nolabait ere, hustutzen segituko du herriak.

Herri ttiketako gazteek lana erraxago harrapatzen dute hirietakoek baino



Rikardo ABRIL
Beratarra

Kimikan lizentziatzeako asignatura bat falta zait bakkarrrik, eta hemen in-

guruako fabriketan lana bilatzen saiatu naiz, Vercol-en, Lesakako Laminaziotan... baina kimikoek egiten ahal duten lana baden arren, normalean bertze langileek egiten dute, eta nahiz eta prozesua ez ulertu, egin beharrekoa ikasi eta urteak pasatzen dituzte hori egiten.

Hemengo fabriketan lanik harrapatzen ez badut kanpora atera beharko dut seguraski, edo institutuko irakasle bezala hatea ere pentsatua dut, bertzenaz. Bertzetik, fabrika batean lanean hasteko kontratu ttiki bat egin didate, nahiz eta nere ikasketekin deus ikustekorik ez duen izanen lan horrek.

Nik uste dut herri ttiki hauetan lana harrapatu, harrapatzen ahal dela, bertze gauza bat da ze baldintzatan. Hirian bizi direnek baino aukera gehiago dugula pentsatzen dut, han mugatuago daudelakoz.

Lehenbiziko lana Ibardingoa izaten dute Berako gazte gehienek, eta hori udan xoxa batzuk ateratzeko ongi heldu bada ere, luzera begira nahiko gogorra iduritzen zait hango lana.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxa: 133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitoprenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

IRAKURLEAK MINTZO

Juan Tomás Etxabide, Eduardo Conde eta bertze bati erantzuna

Nolabaiteko harridura sortu zitzaidan Etxabide jaunak, bere ohiko nabarmendu nahiarekin, Lesakako HB bere helburu pertsonalen aurrean makurtu eta bere interesen alde jokatzeko lortu zuelaren berri egunkari desberdinen bitartez izan nuenean. Conde jaunari berarengandik gehiago ez nuela espero erratea gelditzen zait soilik, frogatu baitu gehiagorako ez duela ematen, den bezala kontzejala izanik eta plan municipalak eratzten daramakigun denbora eramanik, ikasteko astirik ez duela erranez heldu da gizona. Oroitaraziko dizut, Conde jauna, 1.996ko uztailaren 5eko Udal Batzarrean (denbora joan da orduz geroztik) HBk berdina erran zuela, denbora gutti izan baitzuten talde erredaktoreak ekainaren 19an lehen azalpenak eman zizkigunetik, zertan aritu zara ordu ezkerotzik?

Plan orokorra eta babes ofizialeko etxebizitzetako dago kienean aholku bat emanen dizuet: Tontakeriekin prentsan atera aurretik guttienez egin behar duzuen plana irakurtzea da Etxabide jaunaren kasuan, eta udal-akordioak gogoratzea Conde jaunaren kasuan. Gainerakoan...

Baina bere oroimen txarra kontutan izanik pixka bat freskatzea bertze erremediorik ez zait gelditzen eta horretarako 1.996ko uztailaren 5eko udal-batzarera itzuliko naiz, 5. puntura:

S-3 SEKTOREA

A-Azalera osoa babes ofizialeko etxebizitzetako zuzendua izatea.

B-Etxebizitzaren tipologia eta kopurua, Nafarroako Gobernua ezarritako determinazio legalen konplimentua bermatuko duen modu batean berdiseinatu eta aztertuko daitezela.

C-Eraikuntzak baxua + hirukoak eraikitzea lurra hobeki probexteko.

D-S.3 sektorea bizkortu eta garatu dadin, erabilitako sistema KOOPERAZIOA izatea, eta ondorioz biztanleriaren beharrak aseko dituen eraikuntza-tipologia merkatu inmobiliarioan paratu ahal izateko.

S-5 SEKTOREA

Osasun-etxeko zona ingurua: Bere diseinua mantendu, KONPENTSAZIO sistema esleituz eta guttienez %30a babes ofizialeko izatea determinatuz.

Ikusi dezakezue, guzti hau udal-batzarrean onartu izan da eta aktetan jasotzen da, beraz, irakurtzearekin nahikoa izanen litzateke. Ez dut segituko kazetaritza-espazioek uzten ez didatelako, baina bertze argibide aunitz egiteko ditut eta emateko datu gehiago ditut; hale-ri dudu bat gelditzen zait, egitan zuek ez zarete entzartzen edo herrian gauzak nahasteko asmoz gezurretan aritzen zarete?

Bukatzeo argituko dizuet uztaila hasieran nik ez dudala komunikaturik atera, zuen gutunean segurtatzen duzuen gisan, SANFERMINeko programa bakarrik idatzi dudalako, eta HBk, Etxabide jaunak, Conde jaunak eta beraien inguruneak edozein eratan izendatzen badute programa hori, hortxe erakusten dute bertzeok maitatzen dugun eta bere alde lan egiten dugun herri honekiko errespetua. Nere erranetara jartzen dira baita ere, eta utzi diezaidazue dudu egiten, zuek inoiz ez zaretelako nere erranetara egon, baikik eta nere parean erranen nuke, zertara bapateko aldaketa hau? Ez ote da zuen erranetan PNVkook dugun interes horretan esku hartu nahi duzuela?

Etxabide eta Conde jaunak, etxebizitzetako edo plan orokor-

rarri buruz nerekin solastu nahi duzuenean ordua eskatu eta solastuko gara, orainarte bederen, jakinahia zuten guziek prentsara jo gabe egin ahal izan dute eta. Ez ote da, Etxabide eta Conde jaunak, zuen interesak bertze batzuk izaki eta ezkutatu nahi dituzuela?

JOSÉ LUIS ETXEGARAY

ANDUEZA

LESAKAKO ALKATEA

**Leitzako EAri edo... aurreko alkateari...**

Bi idatzi ezberdinak kalera-tu ditu Leitzako EAk. Lehenbizikoa jaso ondoren erantzun "inteligenteena" ez erantzutea zela pentsatu arren, bigarreneko aipamen zuzen-zuzenak, alkatearekikoak direla ikusita, argitzeo beharrean aurkitzen naiz. -Gestioa, hauteskunde ondoren, HBren esku gelditu zela esten da: ardura bai, noski, baina gogoratu behar dizuet, aurreko zenbait legezalditan ez bezala banaketa "demokratikoa" eta onuragarria egin genuela. Alkateordea EAkoa, bigarrenak UILkoa, batzorde guztiak, hiru talderen ordezkarri bana.

-Diru gehiegi ailegatu zela, salatu omen zuten HBk. Gezurra. Ailegatutako dirua, ongi banatua izan ote zen galdetu genuen. Galdera oraingoz erantzun gabe dago eta makina bat lan egiten ari gara "azpiak garbitzen".

"Bi urteotan alkatearen elkarrizketaren berririk ez dugu izan, kezkarria..." diote. Kezkarria benetan 30 bileratetik gora egin ditugunean -Nafar Gobernuo ordezkariekin noski-. Aipagarria benetan, bilera guztietara beste taldeetako ordezkariek gonbidatuak zuden, denetara etorri ez badira. Bestaldetik, bilera hauen berri, Udal Batzarretan, irratian eta beste informazio bideetatik egin ohi de-

la gogorazi nahi dizuegu. Beste kontu bat da, eta oso bestelakoa gainera, EAko zinegotziek, ordezkatzen duten taldearekin, behar bezalako komunikorik izan ez badute. Beraien problema da. Eta beraien problema da, berauen zinegotziak "desakreditatzen" badituzte, eta hortan ari dira. Badirudi "batzuk" ez direla "enteratu" edota ez dute onartu nahi...

Ez naiz banan-bana hasiko baina futbol-zelaia, suhiltzaileak, autobusa... aipatzen dira. Ikuspegi oso partikularra, motza eta faltsoa, bestela galde diezaietela zinegotzietatik -EAkoei noski-. Bigarren idatzian berriro ere erasoari ekiten diote, hori omen baita "oposizioaren lana". Zerbait eraikigarria aurkezten al dute? Ez dut uste. "Alkate" hitza hamaika aldiz aipatzen dute... ez nuen uste halako indarra zuenik.

-Geldirik omen dago udala, alkatearen erabakiaren ondorioz. Leitzako HBk Mahai Nazionalaren kideak epaituak diren bitartean funtzionamendu normala ezin zitekeela eman garbi adierazi zuten: batzarrean hitzez eta ondoren idatziz. EAko inork ez zuten deus ere esan, orain kontrakoa esaten duzuen arren. Ez dugu uste, gizarte hau normalizatua dagoenik; ez sozialki, ez linguistikoki, ez kulturalki, ez politikoki... Baina badirudi batzuentzat axolik gabeko egoera dela, batzuri -agian- berdin zaitzuela. Horregatik zuek hor zaudete eta gu hemen. Pakea aldarrikatu baina gatazka bultzatzen duzue.

-Martxoaren 7ko grebaren gorabeherak aipatzen dituzue. Zer da hain eskandalagarria? Udal langileak greba egitearen aldeko jarrera gauzatzea?

-Dena den eta hala izanik, "salbuespenen bat salbu", ohiko batzordeak eta Batzarreak ez zirela eginen esan

genuen. Salbuespen hauek, premiazko gaiak eta gai pilatuak dira. Horregatik horra -adibide moduan- urriaren 13an eginiko Iruñeko bi bilera, batzorde bilerak eta batzarra. Bestaldetik hiruzpalau premiazko adjudikazio eta hilaren 20ean eginiko batzordea. Hauetan -eta hemen bai salbuespen bat edo beste eginaz- zergatik ez ziren agertu EAkoak? Dena den esan beharra dago jarrera hau aspaldikoa dela eta horregatik -arazo pertsonaletan sartu gabe- gure kezka, EAk duen udalarekiko interes ez eta "bokazioaz". Ez da nahikoa zenbaiten ondoren egin duten komentarioa, "EAren erantzuna eta ardura da" esanez.

-Zer da hemen, "HBko alkatearen nagusigoa" esatea? Azkeneko hauteskundeetatik honuntz hainbatek izan duen eman-ekina eta arazo psikologikoak nabari dira.

-EAren idatziaz -azkenik- Eraikuntzarako arauak azaltzen ditu eta honen aldeko parte hartzea. Oso ongi. Hori bera da, Udalaren eta beraz HBren nahia eta asmoa. Dena den, irregularitasunaz hitz egiten bada, norberak neur ditzala bere alkandorakotobeak eta poliiki hitzegin dezagun, sortutako tranpan ez gaitzen eror!

Udaleko zinegotzietatik eginen diegu sistemak, antolaketa orokorrak "jan" ez gaitzen. Agur eta "ea" nola ateratzen duzuen hurrengo. Halere, nahi duzuenean, herriko irratitik hitzegiteko aukera dugu, jendea argi dadin. Bakoitzak "bere egia" badu, besteen aurrean defendatu. A! Azken urteetan udal txetan ikurriña ageri da etengabe. Atera duzuen argazkian, ahaztu zaizue. Garai bateko oroimenak ote?

MIKEL ILLARREGI ELBERDIN

LEITZAKO ALKATEA



✎ Miguel ASIAIN, "Oxio" Irakaslea

"Jaungoikoak libra gaitzala komeni ez den gaitzetik"



Gauza jakina da herri batek duen bizikaltateakultur eskaintzan islatzen dela: Baztannen, alde horretatik, bizi-kalitate eska-

sa dugu.

Exenplu bat paratzeagatik, *Jakin* entziklopediaren zaxtixo bat begiratzeko asmotan joan ginen Baztango Udal Liburutegira, hor *Jakin*en harpidetza eta zenbaki zaharrak baitituzte. Edo hala uste genuen bederen.

Apalategira hurbildu eta hor hasi ginen miatzen *Atrabe d'ouro*, *Academia*, *A de teatro*... eta horrela J-raino ailegatu artio. Baina hara non uste-kabea, *Jakin* zenbaki zaharretarik garaurik ere ez zen ikusten hortik.

Liburuzainari galdegin eta horra hor erantzuna: *Jakin* zaharrak? *Botaiak ditut, leku eskasa baitugu* (erdaraz errana, doike).

Berriro apalategira hurbildu eta jakinminez kontatu genituen aldizkarien titulu desberdinak: 103 aldizkari-zenbaki zaharrak hor biltzen ziren. Horietatik 2 galegoz (*Grial* eta *A trabe d'ouro*), 2 katalanez (*L'avenc* eta *Serra d'or*) eta 98 inperioko erdaraz, gainera aldizkari batzuetatik 60 ale baino gehiago. Bat, eta bakarra euskaraz: TTIPI-TTAPAREN 20 ale ere hor aurkitu genituen. Beraz, euskarako 2 aldizkarietatik baten zenbaki zahar guziak, *Jakin*enak hain zuzen, botaiak zituen leku faltagatik.

Pentsatzen ahal duzue aldizkari-zenbaki kontua ez dela

Baztango Liburutegian euskarari egiten dioten arreta eskasaren seinale bakarra. Liburuaren aldetik %90a erdaraz dago, eta %10 euskaraz, aldizkariekin gertatzen dena baina proportzio hobe, dudik gabe.

Liburu eroste horretan Nafarroako Vianako Printzearen Liburutegi sareak zerikusia badu, eta baita Baztan Balleko Etxeak, lehenbizikoa arduratzen baita liburuaren tituluak aukeratzeaz (erran gabe doa, gehienak erdaraz); bigarrenak diru-laguntzak ematen

Euskararen kontrako jarrerak anitzetan ematen badira ere, espero da kultur jendeak bestelako errespetua izanen duela jakinduriarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin.

baditu ere, liburuak erosteko irizpiderik ez du paratzen. Beraz, Balleko Etxeak ematen duen diru hortatik gehiena erdarazko liburu eta aldizkariak erostera joaten da, Udala jakinaren gainean egonik.

Gure inguruan euskararen kontrako jarrerak anitzetan ematen badira ere, espero da kultur jendeak bestelako errespetua izanen duela jakinduriarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin. Eta are gehiago kontutan hartzen badugu Baztanen, jendearen %80ak ezagutzen duela euskaraz, edota haur gehienak (%95) euskarazko irakasuntzan eskolatzen direla. Hauxe baldin bada kulturajendea, Txirrita zaharrak erraten zuen moduan, "Jaungoikoak libra gaitzala komeni ez den gaitzetik".

✎ Paul FAGOAGA

Langai, Baionako Komertzio Ganbaran



Lehen aldikotz agertuko dira bi lista Baionako Komertzio eta Industriako Ganbaran Bozetan,

heldu den azaroaren 17an izanen direnak. Zergatik gertatu da gauza historiko hori?

Bortz gizon bereziek, komertziant eta industrialak, galdetu dute ganbaran partehartzea, lekuko listaren kideen artean, nahiez odol berri pixka bat eta bizitasun gehiago ekartzeko komertzio ganbara horri.

Eza ukain eta, deliberatu dute beren lista garbia egitea, ez kontra joaiteko, bainan gehienbat ekartzeko entseiatzerat. Lista hortan sartu dira beren jakintasun eta aditasunengatik ezagunak diren gizonak, zerbait on egiteko gogoarekin, eta bide berri batzuen hartzeke segurtasunarekin.

Zoin dira beren ikusmenak? Eskual Herriko departamentu baten ezinbertzea, izateko maneran kadre administratu bat komertzio ganbaran bertan, lan berezi bat egiteko "agro-alimentaires" dituetan, turismoen eta osasunen eremuetan. Behar da ganbara horrek finkatu bere ikustatzea, gehien auzapezen eta herriko jendearen nahimena-ri buruz.

Behar da ere sustengatu herriko ekonomia, lagunduz komertzio tikiak, bereziki Euskal Herri barnean. Behar da ere azkartu elkarlan

ekonomikoa mugaren bi aldeetatik, zeren hegoaldeko industriaren indarrak, egiten ahal du iparraldeko industriaren hedadura.

Euskal Herria hobeki hedatuko da eta denboran luzeago, komertzio eta industriako ganbara anitz eta idekiago batekin.

Bortz gizon bereziek

komertziant eta industrialak galdetu dute ganbaran partehartzea lekuko listaren

kideen artean, nahiez odol

berri pixka bat eta bizitasun gehiago ekartzeko

Komertzio Ganbara horri.

Eza ukain eta, deliberatu dute beren lista garbia egitea, ez kontra joaiteko...

* Ondoko hauek dira Langai zerrenda osatzen dutenak: Industria sailan, **Pantxo Bimboire**, Baionako Cazenave dendakoa; **Michel Etxebest**, Mauleko EBLkoa; **Fernand Perret**, Itsasuko Lorekikoa; **Ramuntxo Kanblong**, Hendaiako Copeleceko burua; **Patxi Noblia**, Sokoakoa eta **Jean Thicoipe**, Copelectronik enpresako buru; Komertzio sailean, berriz, **Henri Duhau** Senperekoa, **Kepa Etxandi** Baionakoa, **Daniel Labatut** Donibane-Lohitzuneko, **Clement Solule** Baionakoa, eta **Jean Minhondo** Irisarrikoa; Zerbitzuetan, **Françoise Duinat**, Artha jatetxekoa, **Peio Berhokoirigoin** Arrangoitzekoa, **François Larraburu** Baionakoa, **François Mindurry** Miarriztekoa eta **Paul Fagoaga** saratarra.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 97-X-27

«Garai batean saskiak ia gauza guzietarako erabiltzen ziren, ezinbertzeak ziren edozein etxetan. Orain, berriz, ez dira deustarako ibiltzen. Bakar batzuk saltzen dira, baina adornorako. Ezin da lanbide honetatik bizitzen ahal».

Agustin ANT XORDOKI
Ilgantziko saskigilea
Diario de Noticias 97-X-27

«Txirrindularitza, laister egiteko moduagatik eta dauden interesengatik utzi dut. Taldeen asmo bakarra nola edo hala irabaztea da eta, horren ondorioz, batzuri ez zaie batere inporta txirrindularien osasuna».

Iñaki GOIA
Berako txirrindulari ohia
Diario de Noticias 97-X-21

«Nazabal indartsu heldu zen eta ni erritmoari eutsiz joan naiz, bestela badakizu zer gertatzen den gogorregi jota, hankaz gora joateko arriskua duzula. Nolanahi ere, pentsatzen nuen azkenaldira hartuko nuela buelta».

Donato LARRET XEA
Arantzako aizkolaria
Egin 97-X-27

11 GALDERA LABUR

◆ **Lehenago feriak edo oraingoak?**

◆ Lehenagoak baserritarragoak ziren, orain puesto eta saltzaile gehiegi dago.

◆ **Tratante ona zein da?**

◆ Aziendak balio duena pagatzen duena.

◆ **Aziendarik gabeko feriarik ezagutuko dugu?**

◆ Ez, feria lehenago akituko da, orduan ez da feria.

◆ **Traturako, zer nahiago, gizaseme ak edo emakumeak?**

◆ Gizasemeak, ohitura hala da.

◆ **Azienda kontrabandoa ba al da oraindik?**

◆ Ez, ez dago eta ez da beharrik, Merkatu Komuna baita.

◆ **Zure gustuko animalia?**

◆ Behiak eta aretzeak, pirenaika arrazakoak.

◆ **Behirik hoberena non ikusi duzu?**

◆ Asturias eta Frantzia badira onak, ni hemengoekin gelditzen naiz.

◆ **Tratantea izateko, psikologia edo mingain ona?**

◆ Psikologia, tratu eta bista ona.

◆ **Ferietan zer da falta?**

◆ Baserritarrek ekartzen ahal zuten azienda gehiago, bizitasuna emateko.

◆ **Eta soberan?**

◆ Saltzaileen puesto gehiegi dago.

◆ **Afizio bat?**

◆ Pilota eta aizkora, horien artean Retegi eta Mindegia.

◆ **Bizio bat?**

◆ Ongi jatea.

◆ **Telebista ikustea edo jendearekin egotea?**

◆ Jendearekin solastea, telebista gutti ikusten dut.



Pedro Jose MARTIN
Tratantea. Doneztebe. 45 urte

Xirgil
ileapaindegia
★★★★★★★★
© 631462 • Altzate I • BERA

ttipi-ttapa
internet
<http://www.oncomix.es/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi@oncomix.es

LIKIDAZIOA

% 40ko DESKONTUA



Opariak, boltsok, karterak, erlojuak,
manikura kutxatilik, bitxiak,
zeramikazko irudiak, gerrikoak

Eguberrietako apaindurak (bolak, ...)

Aprobetxatu! Berehala dira Eguberriak

DROGUERIA MOLINERO

Eztegara 19 • © 63 02 40 • BERA

ttipi-ttapa



631188

*Zure
publizitaterik
onena*

Udazkeneko Jira-bira herriz herri

Joan den urriaren 25ean hasi eta abenduaren 14a bitarte, *Udazkeneko Jira-bira* kultur kanpainak antzerkia, dantza, musika eta zinea eramanen du 200 eta 775 biztanle arteko Nafarroako 51 herrietara. Kanpaina honen antolatzailea Bianako Printzea erakundea da eta aurrekontu osoa 10 milioi pezeta ingurukoa da.

Eskualdeko herriei dagokienez, Igantzi, Labaien, Arantza, Urrotz, Donamaria, Areso eta Iturenen izanen dituzte ekitaldi ezberdinak. Dagoeneko, igande honetan Labaiengo elizan Sarasate laukotearen ganbara musika aditzeko aukera izan dute.

Kulturrekitaldiekin segituz, baina Baztan aldean, *Folk Ametsetan* kanpainari hasiera eman diote igande honetan, Zaharrak Berri taldearen emanaldiarekin. Igande honetan, *Tapan Group* Indiako musika eta dantza taldearen ikuskizuna izanen dute eta azaroaren 16an, *Rakoto* Madagaskarreko musika taldea.



Zaborren tratamendua lehentasuneko arazoa da eskualdeko Herriko Etxeendako Artxiboa

Eskualdeko zaborren gestioari buruzko alternatibak aztertuko dira

Donostiako Hibaia enpresak egingen du

TTIPI-TTAPA

Donostiako Hibaia, S.L. enpresak egingen du Baztan Bidasoako zaborren gestioari buruzko alternatiba ezberdinen azterketa estudioa. Enpresa honen proposamen ekonomikoa ez zen aurkeztu ziren sei ekitaldi merkeena (2.494.000 pezetaren truke egingen du lana,

BEZa barne), baina bai egokiena, epaimahaia osatzen zuten kideen arabera. Epaimahaian, Baztango udaleko eta Malerreka eta Bortziri-etako zabor mankomunitatetako ordezkariekin batera, Nafarroako Gobernuo Ingurugiro saileko teknikaria zeuden.

Kontuan hartu behar da, lehiaketaren hasie-

rako prezioa bi milioi terdikoa zela, beraz, Donostiako enpresa honek %0,24 bertzerik ez du jautsi. Halere, puntuak ematerakoan, bertzelako alderdiak (eskaintza, baliabideak, gaitasuna eta aurrekontua, zehazki errateko) ere kontuan hartu zituzten epaimahaikideek, urriaren 7an egingo dako bileran.

Ehizari buruzko V. Ihardunaldi Gastronomikoak

Baztan-Bidasoako hemeretzi jatetxek eskainita, Ehizari buruzko Jardunaldi Gastronomikoen burutuko dira azaroaren 7tik 30a arte.

Bertze urteetan bezala, usoa, basurdea, oreina, erbia edo oilagorra lehengai bezala hartuta, Bertizko Partzuergoan biltzen diren jatetxe horietan menu goxo bat dastatzeko aukera paregabea izanen da. Menuen prezioetan alde izanen da eta merkeena 1.500 pezeta gostako den bitartean, garestienagatik 4.000 pezeta ordaindu beharoko dira (ardo eta BEZ kanpo). Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko kartak eskainiko dituzte. Menu hauek zein jatetxetan eskainiko dituzten jakiteko, 36. orrialdeko publizitatea begiratu.

Ihardunaldi hauen antolatzailea Bertizko Partzuergo Turistikoa da, Cederna-Garalur elkartearen eta Nafarroako Gobernuo Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamenduaren laguntzaz.



Aranguren

Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 - 77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

SAROBÉ

okindegia 

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

Dia 
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero
ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6
© 63 14 03 - BERA

Datozen egunetan kontent izateko arrazoi ugari dituzte bertsozaleek

Azaroaren 16an Txapelketa Nagusiko finalerdia ospatuko da Beran

ASIER GOGORZA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak gure herriari bisita egiten dion lehendabiziko aldia izanen da honenbertzez, nahiz eta Nafarroako Bertsolari Txapelketako kanporaketak behin baino gehiagotan jokatu izan diren Beran. Azkena iazko martxoan, eta orduan finalerdiko saioa polikiroldegian burutu zen. Oraingo honetan, berriz, polikiroldegian egitea hasiera-hasieratik baztertu egin zuten antolatzaileek, eta egoikiago eritzi zioten Eztegarra pilotalekuari.

Txapelketa Nagusiko finala abenduan izanen da Anoetako Belodromoan, eta harat ailegatzeko Bera, Igorre (Bizkaia), Beasaingo finalerdiak gainditu beharko dituzte bertsolariak. Hau idazterakoan kanporaketa hauetarako sailkatu diren bertsolari guztien izenik ez badugu ere, Egaña, Lizaso, Lujanbio, Mendiluze eta Murua bezalako bertsolari sonatuak bertan izanen direla segurua da.

Erran bezala, azaroaren 16ko arratsaldeko 5etan izanen dute atzenu ezineko zita ingurutako bertsozaleek, denbora luzean ez baita ho-

Lehendakari Sarian gailendu da Jon Bru

Hogei urteko beratar hau Nafarroako txirritululari amateurren artean bere erregulartasunagatik nabarmendu da aurtengo denboraldian, eta bere ibilbideari merezitako saria jaso du berriki. Lehendakari Sarirako, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan korritzen diren laisterketa guztiek puntuatzen dute, eta txirritululari nafar batek challenge hau eskuratzen duen lehen aldia da. Jonek berak adierazi duenez esprinta da bere armarik garrantzitsuena, «zelaietan ez naiz batere ibiltzen, eta jautsiretan beldur pixka bat izaten dut». Heldu den urteko helburuen artean Bidasoako itzuliari ematen dio lehentasuna



rrelako aukerarik berriz subertuko, seguraski ere.

Bertso saioa aditze-ko 1.200 pezeta ordaindu beharko da, 400 pezeta merkeago Bertsolari Elkarteak kide direnek, eta 16 urtetik beheitikoentzako 200 ptatan paratu dute sarrera.

Bertso gehiago

Txapelketa Nagusiarren bezperan -azaroak 15- eta giroa berotzen joateko asmotan, bertze saio bat eskainiko dute zenbait bertsolari gazte-entzako Elkarteak: Amets Arzallus, Estitxu Fernandez, Julen Zelaieta eta Oskar Estanga arratsaldeko 7,30etan hasiko dira kantuan, eta ondoren

Gure Txokoak eta Bortzirietako Bertso Eskolak antolatu duten Bidasoako XI. Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa burutuko da.

Bertze aldetik, Agerrra Mendi Taldeak Bertso Afaria antolatu duela erraten genuen aitzineko alean, eta halaxe da, izan ere Lizaso eta Murua bertsolariak eka-

rriko baitituzte larunbat honetan (hilaren 8a) beraien Agerrako Egoitzan egiten den otorduan abestu dezaten. 3.500 ptaren truke menu goxo bat dastatu eta bi bertsolarien ateraldiekin irri egiteko aukera izanen da. Izena emateko 631130 telefonora deitu edo beraien Egoitzatik pasatu.

Menopausiari Buruzko Bigarren Astea

Zuetako aunitzek jardunaldi hauen berri medikuaren kontsultan ikasi izanen du, antolatzaileek -Lesakako Osasun Zentrokoek- han zabaldu dutelako zenbait informazio.

Informazio horrek dioenez, azaroaren 10etik 13rat hizlari desberdinek menopausiarekin loturiko mintzaldi eta diapositiba erakustaldiak eskainiko dituzte Ricardo Baroja Eskolan, arratsaldeko 6etan. Lehena

Antonio Valderrabano medikuak emanen du «Anatomia» gaiaren inguruan.

«Norberaren zainketa orokorra klimaterioan» gaia harturik Lourdes Etxarri eta M^{re} Jose Indaburu erizainak solastuko dira, eta bertze erizain bat, Ixabel Aleman, menopausian erabiltzen diren tratamenduei buruz ariko da. Hita Sagasetaren saioarekin itxiko da zikloa.

flash

❖ **68ko kintakoek** afaria egiten dute azaroaren 29an Zalain jatetxean, eta izena eman nahi duenak Zalainen bertan egin beharko du, azaroaren 26a baino lehenago, beti ere.

❖ **Euskaldunak Abenturan** Bi emanaldi eskainiko dute munduan zehar hainbat bidai egin dituzten pertsonaia batzuek. Astelehenean Jon Sarasua, Amaia Antero eta Kontxi Erro Guatemalara egindako bidaiari ariko zaizkigu, eta asteazkenean, azaroak 14, Nandus-ek Alaskatik Tierra del Fuego-ko ibilbidearen berri emanen digu.

❖ **Lurraren Eguna...** inoiz baino arrakastatsuago subertu da aurten, Altzaten ibilizena jende pilari begiratuta, batez ere. Ia 70 eskulangilek paratu zuten postua, eta Gasna Lehiaketa Etxalarko Basate base-rikko Isidro Ariztegi irabazi zuen.


KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA


ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA
EGUNEKO MENUA FTA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA


Irain dantza taldeak 10. urtemuga ospatu zuen Dantzari Txiki Egunean

Hirurehun dantzari eta musikari bildu ziren

AITOR AROZENA

Irain dantza taldeak, bere sorreraren 10. urtemuga ospatu zuen urriaren 26an, Dantzari Txiki Egunaren edizio berri batean. Zarautz, Oñati, Lezo, Legazpi, Goizueta eta Igantziko dantzariak, herriko Irain eta Tantirumairu taldeekin elkartu ziren, guzira 300 bat dantzari eta musikari bilduz. Hauen, Andosillako jotero gaztetxoak gehitu behar zaizkie, herrian bizi izan zen musika eta dantza giroaz ongi jabetzeko.

Goizean, ohorezko aureskua eta bertsoen ondotik, karrikaz karrika ibili ziren. Gero, neska-mutikoen herriko etxeetan bazkaldu zuten. Arratsaldean, plazako jaialdian eskaini zuten talde guzietan beraien




Iñaki eta Patriziok lau urte gartzelan

Urriaren 26an, gartzeletan lau urte bete dituztela eta, omenaldia eskaini zitzaizen Sastrinen Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe herriko preso politikoei. Alderdi horretan dagoen oroitariaren inguruan bertsolariak eta dantzariak aritu ziren, bertzeak bertze, beti ere bi herritarrak gogoratu eta lehenbailehen etxeratzeko eskaria egin asmoz.

emanaldia. Eguna akautzeko trikitixa eta Irain dantza taldearen dako urtebetetze tarta.

Ederra onddoa!

Udazkenean udazkenari dagokiona: usoak, gaztainak eta onddoak! Jendea hasia da harat-honatean, beraien gordeko lekuetara bisitak egiten eta batek baino gehiagok perretxiko ederren bat etxeratua du dagoeneko. Galdetu bertzenaz argazkian ageri den Juan Irazokiri, kilo eta berrehun gramoko onddo beltza harrautu baitzuen Eskolamendi inguruan—leku zehatza ez digu erran, noski—. Horrelako aunitz ez dira izanen, seguraski, baina goiz mugitu eta ongi begiratu gero, otordu baterako haina topatu daiteke.



Irain dantza taldeko gaztetxoak

Legarra

flash

- ❖ **Feriak gainean**
Azaroaren 19ko Merkatu Egunaren ondotik, 20an ospatuko da Bortzirietako feria egun nagusia. Egitarauak, aitzineko urteetan bezalatsu, ez du aldaketa haundirik izanen, baina horren berri, hurrengo alean.
- ❖ **Zerga eta kontribuzioak**
Heldu den urteko kontribuzioak %3,8an igoko dira, inflazioari aurre egiteko. Honela, hiri kontribuzioa %0,274 kobratuko da eta lantanda lurrena %0,252.
- ❖ **Igantzirako bidearen**
moldaketa erdibana ordainduko dute bi udalek (5.917.000na pta). Gainerako 10 milioiak Nafarroako Gobernutik.

Lurrindenda
Marian
endiberri
Estetika
Behoko Plaza 8 • 637791 • LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — 63 07 63

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
627573 • LESAKA

ANA
Janaridenda
Bittiria, 41 • 63 79 44
LESAKA

ETXALAR

Landagain eskolako neska-mutikoek burutu dituzte beraien irratsaioak

Xorroxin irriariaren tresneriaz egiten diren urteroko saioak izan dira

PELLO APEZETXEA

Lau egunez, maila guzietako haurrek parte hartuta, hainbat berri emate, kantu, joko eta elkarrizketa eskeini digute. Urriaren 28an Jose Manuel Irigoien elkarriketatu zuten, informazio munduan hain gaurkoa den Internetari buruz. Pirutegiez egin zizkioten galderak Patxiku Irisarriri, asteazkenean, herrian zenbait lanbidea eskeintzen dien lantegiez. Sarezko ehiza izan zen ortzegunean jorratutako gaia, Pello Apezetxearekin, ehizaren denboraldian gaudela aitzakiazat hartuta. Erleek bete zuten ortziraleko solasketa Santiago Mitxelorenarekin; erle mundu aberats eta ezezagun horren zenbait berri jakiteko aukera eman ziguten. Mikrofono aitzinean aritzea, ikasbide balioetsua da, dudarik gabe, haurrentzat.

Asteburu honetako kultur ekitaldiak

Azaroaren 7an, or-



Hiru haurren bataioak

Urriaren 26an hiru haur bataiatu ziren: Joseba Irazoki Goienetxe, Xabier Sanzberro Telletxea eta Nerea Iparragirre Irigoien, gurasoen besotan ageri direnak.

tzirala, Julian Bereziartua medikuak emanen du solasaldia. Janariak osasunean duen eragina eta hainbat gauza agertuko ditugu. Arratsaldeko 7,30etan. Larunbatean, berriz, afaria, baina txistez hornitua, Euskal Telebistako Txiskola programan txapeldun gertatu ziren txiste kontalariak eto-

rriko baitira. Eta, gainera, herriko trikitalariak. 9etan. Igande arratsaldean haurrentzako izanen da, batez ere. Lehenik, Musika Tailerra, non zabortegira botatzen dugun gauzaz zer egiten ahal duten ikasiko baitute. Eta ondotik, Gaztelu Haizatuak eta Zezen Mekanikoa. Etxalarko Euskara Ba-

tzordeak antolatuak dira, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.

Bertso eskola aintzineria eta indarberritua

Bertso Eskolak hasi du ikasturte honetako ibilaldia. Aintzineko denboraldian aritutako-

ek segitzen dute, baina lagun berriak ere badituzte. Lau mutiko eta zortzi neska, hamabiko taldea osatzen dute oraingoan, Iñigo Olaetxearen laguntzaz. Bertso saioen bat ere antolatuko dute, iazko modura. Asmoak horrelakoak dituzte, behinik behin.

Usoa lasai dabil

Eguraldi onagatik, jateko ugari ikusten duela, edo ez dakigun bertze zerbaitengatik, pasatako usoa itzuli ere egin da, itsaso alde horretan. Berri hau idazteko egunean eman du hoztearen lehen seinalea eguraldiak. Eta horrela joanez gero, mugiaraziko ditu hegaztiak. Lertxunek ere egin baitituzte beren lehenbiziko marrazkiak zerruan.

Herri lurren probetxumendurako...

ordenantza aldatuko da datorren urte hasieratik, azaroaren 20a baino lehen alegaziorik aurkezten ez bada.

«**USOA**»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESACA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Ehiza Fianbreak
Ondokiz betetako aza pastela
Nar eta Pikillo saltuan
Ondo nahaskia
Etxalarko oia zaharrena prestatutako usoa, galper arnaultze eta gaztain purcaz lagunduta.
Gaztain eta Trokolate Pastela
2.900 pta.
635290
ETXALAR
udazkeneko
Menu berezia
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
LEGAZPA
Legarra, 9 • 63 70 30 • LESACA
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak

IGANTZI

Segituan hasiko dira Lesakako bidea moldatzeko lanak

Herriko argiteria Piedade aldera zabaltzeko lanak ere abudo egingen dira

OSKAR TXOPERENA

Argiteriaren zabaltzea

Urte pare bat joan da Herriko Etxeak herri-gunea edo *zona urbana* delakoa Piedade gaina aldera zabaltzeko zuzen-erantzukizunak eta zerbitzuak ere alde hartara zabaltzeko ekin dio. Orain arte herriko argiteria Gartxipiko galtzadaraino ailegatu zen, eta, orain onartu den proiektuarekin, Aizalegiraino eta kanposantutik behitago dagoen maldaraino zabaltzeko nahi da. Aurrekontua 800.000 pezetakoa da eta oraindik ikustekoa dago zer zati ordainduko duen Nafarroako Gobernuak.

Kruzeroaren moldaketa

Kruzeroa bihurtzeko zabaldu eta kuneak moldatzeko eskatu-



Lesakarako bidea berehala moldatuko dute

Bi txirriindulari hauek, Martinez eta Arritunandia, ez ditugu aisa berriz ikusiko Piedade aldera etortzen, profesionaletan izanen direlako seguraski, baina, etortzea tokatzen zaienei hagitzez errezagoa egingen zaie hemendik aintzinerara. Abudo hasiko omen dira errepidearen moldaketa lanak.

ko dio Herriko Etxeak Nafarroako Gobernuari. Errepidean egin zuten azkeneko moldaketan nahiko estu gelditu zen Igantzi alderako sarre-
ra, juxtuan baitago bi

kotxe gurutzatzeko lekua eta Berrizaun alde-
ra ateratzerakoan ongi ikustea zaila delako. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuaren gain dago fabrika zaharreraino da-

goen errepide zatia eta hori da, hain zuzen, kuneak moldatu gabe gelditu den zati bakarra.

Berrizaungo kapilla

Berrizaungo eskola

zaharrean kapilla egiteko baimena eskatu diote bertako auzotarrek Herriko Etxeari. Orain arte, hainbertze urtetan, Santzenea etxeko gela bat izaten zuten igandero meza entzutera biltzeko lekua. Orain, etxekoek gela horren beharra dute nonbait, eta bertze leku baten bila jarri dira auzotarrak.

Ikastaroak

Aintzinerara doazi dagoeneko gimnasia eta eskulan ikastaroak. Lehen astelehen eta ortzegunetan izaten da, 8,30etatik 9,30etara, eta oraindik lekua omen dago nahi duenarentzat. Bertze berriz, bi taldeetan banatu behar izan dute, joan den urtean bezala, egun ezberdinetan. Aurten hutsegina dute euskara ikasteko taldeak izan dira. Iaz hiru eta aurten bakar bat ez!



MARTIKO

Gure baserrietako produktak

© (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13
Zalain Poligonoa, BERA



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZATUN S.L.

Eraikuntza eta moldaketak

Despiezea eta makinaria

Mekanika mantenimendua

Igantzi Benta • © 627572 • Faxa: 637313

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Zure ingurua klase gutzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarmá, kükuxu...) eta arratoi-xagutzozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termite eta Polillen kontrako tratamendua



© 63 01 55
BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 63 00 83 BERA



Zalain Poligonoa

LESACA

ARANTZA

Herrian egindako lanen inaugurazio ofiziala burutuko da larunbatean

Rafael Gurrea izanen da Nafarroako Gobernuko ordezkaria

ELIXABET ETA GARBIÑE

Larunbat honetan, azaroak 8, herrian egin diren lanen inaugurazio ekitaldia burutuko da. Bertara, Nafarroako Gobernuko ordezkari gisara, Toki Administrazio Departamenduko kontseilaria eta presidente ordea den Rafael Gurrea etorriko da. Obrak egin dituzten enpresetako ordezkariak ere herrian izanen dira, udal ordezkariekin batera.

Ekitaldien egitarauari dagokionez, eguerdian, frontoian pilota partidua jokatuko dira eta ordu batean herriko dantzarien saioa eta trikitalarien emanaldia izanen dira plazan. Martin Legarra apezak, lanak bedekintatu dituzte eta gero, herritar guztiak hameketakoa banatuko da. Larunba-



Baserritarren Eguna

Larunbatean ospatu zen Baserritarren Eguna, udazkeneko kultur ekitaldien barnean. Eguna berean txalaparta, herri bazkaria eta kontzertua izan genuen. Ortziralean, solasaldiak, bideoak eta filme ba eskaini zuten eta, igandean, pailazoak plazan.

teko ekitaldi honetan inauguratuko diren lanak honako hauek dira: Ura eta saneamendu sa-

reen berritze lanak; Gasaren kanalizazioa; Plaza eta zenbait karraketako zolaberritzea;

Salbatoreko bidearen moldatzea eta herriko hiru iturrietako teiltuen moldaketa.

flash

- ❖ **Unanue mendiko baso berritze proiektua** prestatuta dago eta orain Nafarroako Gobernuko Ingurugiro sailean aurkeztu behar da. Zenbait plantazio eta pista moldaketa aurkezten da. Bertzeak bertze pinuak, izeiak eta bertako zuhaitzak (haritzak, gaztainondoak, urkiak, zumarrak, gereziendoak...) landatu nahi dira.
- ❖ **Egin mus txapelketa** Kamino eta Angel Mari Ordoki anai-arrebak geratu ziren irabazle, finalean Patxi Mutuberria eta Isidoro Goiari irabaziz. Irabazleak sailkatu dira bertze herrietan aritzeko.
- ❖ **Pila zaharrak** biltzeko ontziak eskolako eta Martiseneko atarietan jarri dira. Ontzi hauek horiak eta tikiak dira. Erabiltzeko deia zabaldu du udalak.

EKAITZA kafetegia
 COSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

LANCHAS
 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta berrizatzeak
 • Estaldura orokorrak
 Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

LABEZAR
 ☎ 631076 • BERA

EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena
Frexkuena zugandik hurbilago
 Bittiria, 67 - ☎ 637264

ttipi-ttapa
Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez
 Franko Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezker, zuk bidaltza baino erdi prezioa kostako zaizu.
 Iparraldetik deitzeko 19-34-48-631188
 Hegoaldetik deitzeko 948-

XATURETXEA
 JATETXEA
 Tfinoa: 63 70 27 **LESAKA**

ttipi-ttapa
 6.500 harpidedun
 23.000 irakurle

SUNBILLA

Eskualdeko futbito txapelketarako izena emateko epea zabalik dagoeneko

Artisautza ikastaroak Ulibeltzak elkartean

JAIONE ETA ALBA

Berriro ere hemen-txe dugu futbito txapelketa. Aurten, ordea, antolatzailea ez da Sunbillako Herria izan, Erreka eta Ulibeltzak elkarteak baizik.

Hasiera, urtarilaren lehenengo igandean emanen zaio, partiduak Doneztebeko frontoian jokatu direlarik. Aipatu beharra dago, Elizondoko polikiroldegia ere eskatuta dagoela partiduak jokatzeke, Sunbillako frontoia, lanen ondorioz, itxita egonen delako hurrengo bederatzi hilabetetan.

Aurreko urteetan ez bezala, partiduak Gipuzkoako Aretu-futbol Federazioak arautu eta gainbegiratu ditu. Epaileak ere, Gipuzkoako epaile eskolakoak izanen dira. Futbito txapelketa honek, ondorengo faseetan banatuko da. Hasierako fasea, bukaerako fasea, final laurdenak, finalerdiak eta finala. Doneztebe, Sunbilla eta Baztango udala laguntzaile izanen dira, Xorroxin Irratia, Diario Vasco



Frontoia moldatzen bederatzi hilabete emanen dute

Artxiboa

egunkaria, Cope irratia eta bertze 30 merkatal establezimendurekin batera. Apuntatzeko epea abenduaren 5ean akautuko da eta antolatzaileek adierazi dutenez, zerrenda luzea dago jandak. Edozein infor-

mazio behar izanez gero, zonaldeko Rural Kutxako bulego guzietan eska daiteke.

Gogoratu behar da, bertzalde, sariz ederki hornitua egonen dela aurtengoan txapelketa hau. Talde txapeldunak 60.000 pezeta eta oroi-

gariak eramanez dituzten eta azpitxapelkunak, berriaz, 40.000 pezeta eta oroigarriak. Gainera, goleatzaile eta atezain onenentzat, jokalaririk erregularrenari eta kirolzaletasuna gehien gordetzen duen taldeari ere sari bereziak emanen zaizkie.

Artisautza ikastaroak

Hamabost emakume emanen dute aurten izena artisautza ikastaroan. Ulibeltzak elkartean biltzen dira, astearte eta ortzegunetan, goizeko 10etatik 12etara. Taldearen irakaslea Etxalarko Begoña da. Ikastaro honetan izen emateko matrikula 10.250 pezetakoa da eta Malerrekako herrietan bezala, Ezpelura taldeak antolatu du. Beraien eskulanak ikusteko aukera izanen da laister.

ALDABE TAXIA
DONEZTEBE
 © 450687

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

BEINTZAKO OSTATUA

 Tfnoa: 45 00 14
 BEINTZA-LABAIEN

ttipi-ttapa
 6.500 harpidedun
 23.000 irakurle


APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN


MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
 Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

Dantza ikastaroetarako bortz talde sortu dira

Urriaren 25ean, larunbatean, hasi ziren


TXEMA ALDABE

Doneztebeko Guraso Elkarteak antolatutako dantza ikastaroetako brrreogeita hamabortz lagunek eman zuten izena, denak lau eta hamabost urte bitartekoak. Berako Kristina eta Estitxu dantzariak dira irakasleak eta klaseak, berriz, larunbat goizean jasotzen dituzte lau taldek eta arratsaldez bosgarrenak.

Erran behar da, helduen artean ere sortu dutela talde bat eta hauen irakaslea M^a Kruz baztandarra dela.

Mendi ibilaldia igande honetarako

Belate-Txaruta- Doneztebe mendi ibilbidea antolatu du Erreka elkarteko Mendi atalak igande honetarako, azaroak 9. Irteera goizeko 8etan izanen da autobus geltokian eta ibilbide hau egiteko izena eman behar da Titi tabernan. Azken eguna azaroaren 7a da. Errekako bazkide edo sozio denak 150 pezeta ordaindu behar



Feriak azaroaren 14an

Erdialdeko gehigarrian ikus dezakezuen, datorren ortziralean, azaroaren 14an, Doneztebeko Feriak ospatuko dira. Goizeanazienda ederrak ikusteko -argazkikoa, horren adibidea- eta bertso saioa aditzeko aukera izanen da. Arratsalde, berriz, herri kirol jaialdia frontoian.

du eta bazkide ez denak, 250.

Koteto Ezkurra Espainiako txapelketan

Koteto Ezkurra erremontelari doneztebarrak Espainiako txapelketa nagusian parte hartuko du, gibeledu koa droetan Imaz lagun due-

la. Txapelketa azaroa eta abenduan zehar jokatu da, Huarteko Euskal eta Hernaniko Galarreta pilotalekutan. Partehartzaileak bi multzotan banatuko dira eta liga sistemaren birtartez jokatu da, joaneko eta etorriko partiduekin. Multzo bakoitzeko bi lehendabiziko

sailkatuak finalerdietan arituko dira, hemen ere bi partidura. Finala, berriz, partidu bakarra izanen da eta Galarretan jokatu da. Koteto animatua dago txapelketa honetarako, nahiz eta bere ustez, ez dagoen momenturik onenean. Ea bikoteka bere lehen txapela lortzen duen...

flash

Zinea

Azaroaren 15ean eta 16an «Murder at 1600» pelikula eskainiko dute Doneztebeko zinean. Larunbatean, gaueko 10etan, eta igandean, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

Administrari laguntzaile lanpostua

Doneztebeko Udalak, administrari-laguntzaile lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia zabaldu zuen joan den urriaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (BON). Interesatuak, azaroaren 20a arteko epea dute eskabideak aurkezteko. Azterketa eskubideak ordaintzeko 1.000 pezetako tasa ordaindu behar da.

Bertso eskola

izanen dute aurten Beintza-Labaien, NARBATE eta Iturenen. Klaseak herri bakoitzeko eskolan izanen dira eta irakaslea Estitxu Arozena lesakarra izanen da. Xehetasun gehiago, Malerrekako Euskara Zerbitzuak plazaratutako gehigarrian.

ARIN ASEGURUA

Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

IBARROLA HAURENDAKO ARROPA MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
23.000 irakurle

Zure publizitatea etxe xoko guzietan

☎ 63 11 88



• TABERNA •

Gosariak • Bokatah • Pintxoak

DONEZTEBE

(Osasun Zentroaren parean)

☎ 451766

MALERREKA

Aurtizko San Martin bestak, azaroaren 7tik 11ra

Alaitz eta Mainer trikitilariak etorriko dira larunbatean

IBAN ISASI

Inguruko azken bestak ailegatu dira, udazkenaren erdialde honetan. Garai batean, herri gehiagotan ere izaten ziren bestak San Martin egunarekin bat, baina eguraldiak uda aldean egitera bultzatu zituen. Oraindik mantentzen dira, ordea, Iturengo Aurtiz auzoan eta aurtengoan, egitarau bete-betearekin heldu zaizkigu, gainera.

Ortzirala, 7:

Arratseko 8etan altxaferoa eta karrika jira txistularien eskutik. 9etan zopa jatea, Aurtizko ostatuan. 12etatik aintzineria dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Larunbata, 8:

10etan argisoinua txistulariekin. 6etan Zirko Ttipiak «*Hautxandria*» antzeslana eskainiko du. 7etan trikitixa txapelketa. Gaez gaupasa ALAITZ eta MAIDER trikitilarien eskutik.

Igandea, 9:

10etan argisoinua



Joxe Angel akordeolariak lana gogotik egin beharko du Aurtizko San Martin besta hauetan Artxiboa

txistulariekin. 1etan aizkora apostu bikaina, Antonio Jaunarena zubiatarra eta Juan Telletxea doneztebarraren artean. Arratsaldez eta gaez dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariekin.

Astelehena, 10:

10etan argisoinua txistulariekin. 11etan mus txapelketa Aurtizko elkartearen. 5etan haurrendako jokoak. Arra-

tsaldez eta gaez dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariaren eskutik.

Asteartea, 11:

10etan argisoinua txistulariekin. 11etan Meza Nagusia. 12,30etan pilota partidua. 2etan herri bazkaria Zeberio eta Lizaso bertsolariarekin. Besten akabila emateko, gau partean dantzaldia JOXE ANGELEkin.

Iturengo Herriko Ostata hamar urterako errentan eman zaio Iruñeko Fermin Buenori

TTIPI-TTAPA

Urriaren 23an adjudikatu zuen udalak Iturengo Herriko Ostatauaren jabetza datozen hamar urtetarako. Gogoratuko duenez, lehendabiziko deialdira ez zen inor aurkeztu. Bigarren honetara, berriz, bi proposamen aurkeztu ziren eta horien artean, nabarmenki merkeena Iruñeko Fermin Bueno Claveiriarena izan zen. Honen, aitzinetik, kanon finko gisara 2.250.000 pezeta ordainduko ditu eta gero, hilabetero 87.500 pezeta gehi BEZa (IVA).

Aldaketak Ituren eta Urrozko Arau Subsidiarioetan

Yolanda Barcina, Nafarroako Gobernuko lurralde antolaketa kontseilariak Ituren eta Urrozko Arau Subsidiarioetan aldaketa bana onartu du.

Zehazki, Iturenen 10. unitatea aldatu da, honela, *Promociones Ezpelura, S.L.* enpresak bultzatutako zortzi etxebizitzaren eraikuntza egin ahal izateko. Urrotzen, berriz, arau subsidiarioen aldaketa Jose Antonio Iribarren Elizondok eskatu du, 3.000 m²ko lur eremu batean famili bakoitzeko etxebizitza eraiki ahal izateko.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



AURTIZKO OSTATUA

Taberna Logelak Jatetxea



XABIER & LURDES

(948) 45 04 77

Berezitasunak

Arrain eta haragiak parrillan

ttipi-ttapa



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.


631188

San Martin ondoko ortziralean...

F

eria Eguna
ospatuko dute
Donezteben.
Malerreka eta
inguruko

herrietako jendeekin gainezka
eginen dute herriko karrikek
-hortan, gero eta gehiago
etortzen diren kanpoko
saltzaileek ere lagunduko
dute-. Eguerdian bertso saioa
eta arratsaldean, herri kirol
jaialdiarekin goxatzeko aukera
ere izanen da.



MARTIN HARATEGIA

BERTAKO ARETXIAK

Parrokia 1, ☎ 45 01 60 • DONEZTEBE



**ALBAITERITZA
ZENTRU TEKNIKOA**

Juan Ramon Ostiz

Karrika Nagusia 1, ☎ 45 05 91 - DONEZTEBE

Inguruko ferietan
lehen aldiz ikusi
ziren ostrukak izan
ziren joan den
urteko ikuskizuna
Donezteben

Arg.: KARMELE

TITI OSTATUA



Ongi pasa herriko feriak



Amezti 7, ☎ 45 02 71 - DONEZTEBE

Sukalde eta
bainuko
mobleak
Elektrogailuak
eta sukalde
tresneria
Erlojudenda
eta bitxidenda
Zerbitzu
teknikoa

*Migelena
Anaiak*



Amezti z/g • ☎ 45 01 26 • DONEZTEBE

**ARREGI
OINETAKOAK**

Karrika Nagusia 21
☎ 450210
DONEZTEBE

Miguel SAN MIGUEL, alkatea:

«Feria Eguna egun haundia da doneztebarrentzat»



Donezteben egun borobila pasatzeko aukera izanen da datorren ortziralean, azaroaren 14an. Programa ez da aunitz aldatu azken urteotan, Miguel San Miguel alkateak dioenez. «Goizean azienda feria, 11,30ak aldera bertsolariak, Angel Mari Peñagarikano eta Xebastian Lizaso, Estitxu Arozena lesakarra gai jartzaile dutela eta arratsaldean herri kirol jaialdia frontoian, azken urteotan bezala. Azken hau urtero antolatzen du Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatzen du eta arras kontent gaude».

Programa ez da dena, ordea, Feria bezalako egun batean. Goiz goizetik hasita, herriz herri dabilzan saltzaileak hartu izanen dute beren lekua herriko karriketan, aunitzitan oinezkoei eta, batez ere, ibilgailuei harat-honatean ibiltzeko traba dexente paratuz. «Joan den urtean etorri zirenekin nahikoa eta sobrante dugu», alkatearen arabera. Hori

dela eta, egun horretarako polizia foralen laguntza eskatzen dute Herriko Etxetik, trafikoa arautzeko. Aurtun, kontzientzia eragozleak ere lanean paratuko dituzte. «Hamar-hamarka objetore badira eta herri barrerako afera antolatzeko hartuko ditugu».

Postuak salduz 800.000 pezeta iaz

Eragozpenak ez ezik dirua ere ekartzen dute, noski, saltzaileek. Postuetarako metro karretua 1.400 pezeta kobratzen diete eta joan den urtean, adibidez, 800.000 pezeta inguru bildu zituen Doneztebeko Herriko Etxeak diru-sarrera honi esker. «Jendea aspaldi galdeka hasia da eta aurtun ere, horrelako zerbait biltzea espero dugu, bederen» dio San Miguelek.

Alkateak ez du, normalean, gainerako herritarrek bezala fe-

Alkateak ez omen du, gainerako herritarrek bezala, ferietan disfrutatzen ahal.

Artxiboa



Elizagibela, 7 Behea
☎ 45 01 02
DONEZTEBE

Ingelesa ikasteko modurik errax eta atsegina

Feria on batzuk pasa!!!

VITARA

Gasolina 16 V

MENDAUR MOTOR

Leitzako errepidea
☎ 45 03 33
DONEZTEBE

SUZUKI

- Kotxea ITV pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI, NISSAN, MITSUBISI eta OPEL ibilgailuak
- Aukerako ibilgailuak
- Tapizeriak garbitzen ditugu
- Ezkontzetarako autoak apaintzen ditugu

rietan goxatzeko aukerarik. «Goizeko 7,30etan ematu eta dena pixko bat antolatzen laguntzen dut eta gero, Iruñetik eta etortzen diren agintariei laguntzeko beraiekin egon behar izaten dut: feria pixko bat ikusi eta gero bazkaria. Bazkalondoren, herri kirol festibala ikustera». Doneztebebar guziki bezala, halere, «Feria Eguna, egun haundia dela» uste du.

Bere ustez, azienda feria dexente mantentzen da: «Hemen suertea dugu, tratanteak baditugu, Mendiburu bi anaia, gero Martin... hauek azienden afera mantentzen dute pixko bat, behiak, aretxeak, ardi bat edo bertze... Kanpotik bat edo bertze etortzen da eta joan den urtean, adibidez, Ultzamatik ostrukak ekarri zituzten, bixikeri bezala».

Santa Luzia Feria berreskuratzeko eginahala

«Tratanteen artean tratoak eta izaten dira, ez dakit ekartzen duten guzia saltzen duten, baina bai



izaten da mugimendua». Herriz herri ibiltzen diren saltzaileak egiten dute, bere ustez, negozioirik haundiena eta pixko bat aintzinako feria modua aldatzen ari direla uste du Doneztebeko agintari nagusiak. Hori dela eta, azken urteetan, Santa Luzia

Aziendak, ez ezik, klase guzietako generoa izanen da aurten ere Doneztebeko ferietan.

Arg.: Karmele

Eguneko feria berreskuratzeko saiatzen ari dira: «Aurten Cederna-Garalur erakundearen laguntza izanen dugu, bultzada berexia emateko egun horri. Garai bateko ohiturak mantenduz feria egin nahi dugu eta egiten ari gara azken urteotan. Lehen azien-

da eta turroi saltzaile bat edo bertze bertzerik ez zen etortzen. Udazkeneko feria honetan, kanpoko saltzaileak eta gailendu baitira eta horri buelta ematea zaila izanen da».

Aurrekontua ere bateratua izaten dute, Udazkeneko Feria eta Santa Luzia eguneko feriarako, «denetara 896.721 pezetako aurrekontua izanen dugu aurten, bi feriak antolatzeko».

Nerea
Oinetakoak
San Miguel 2
DONEZTEBE

FERIAK
ONGI PASA
ITZAZUE

Harieruz
LENTZERIA

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
23.000 irakurle

JUAN J. PIKABEA

AUKERA HAUNDIA TRAJE EGINETAN GIZONENDAKO JOSTUNGINTZA

AMEZTIA Z/G • DONEZTEBE
TFNOA: 45 16 70

Aukera haundia galtza bakerotan

- BONAVENTURE (sei modelo ezberdin)
- Egindako traje eta jantzietan aukera zabala

ERRINTZI

Aurtengo feriak umore ederrean pasatu

Merkatarien karrika 28
© 451826
DONEZTEBE

OSTATUA



Herriko tratanteei esker, plazako azienda feria oraindik indartsu mantentzen da. «Ez dakit ekartzen duten guziaz saltzen den, baina izaten da mugimendu haundia» dio alkateak.

Artxiboa

Kanpoko saltzaileen eta herrien saltzaileen arteko tirabirarik ez du somatu Miguel San Miguelek. «Egia da saltzaile aunitz etortzen direla, baina, nere ustez, herrikoek badakite egun bateko kontua izanen dela». Arazo haundiagoa izaten da bertzeen

sakelak miatzen ibiltzen diren xoxa-ebasleekin. «Joan den urtean dozena erdi bat edo harrapatu zituzten. Beti erraten dugu kontu haundiarekin ibiltzeko. Badakizu, jende aunitz ibiltzen den tokian denetik izaten da eta horiek badakite ongi non ibili».

Halere, inguruko jende guziaz biltzeko egun ederra denez, guziei datorren ortziralean etortzeko gonbitea luzatu die alkateak. Egitarauaz kanpo, lagunekin biltzeko eta kontu kontari aritzeko aukera polita izanen baita Donezteben. □



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

RUIZ okindegia

Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, ☎ 45 00 37 - DONEZTEBE



Pintxoetan espezialitatea
Bokadilloak
GAUEZ MARTXA

Parrokia 3
☎ 45 03 18
DONEZTEBE

Jose Luis SAN MIGUEL

STHIL Zerbitzu Ofiziala

- Bizikletak • Motoak • Nekazal Tresneria •
- Salmenta eta konponketa

MOTOZERRETAN OFERTAK

☎ 45 07 11 • DONEZTEBE



zapato
&
esagarrriak

- Paredes
- Braco
- Liberto
- Kickers

Merkatarien karrika, 21 • DONEZTEBE
☎ 948 45 18 01



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

Euskara Batzordea mintzo



Laguntzaile:
Nafarroako Gobernua

Gazteak baleki, zaharrak baleza dio erranahi zaharrak. Xaharrak, gaur egun, orohar, bazterturik bizi dira gure gizartean; halere, haiek dira beren arbasoengatik jasota gure ohiko kulturaren adierazpenak gorde dituztenak.

Mendeetako katean gizaldi arteko etendura hasten zelarrik, bil-tzaileek galtzetik begiratu zuten herri jakintza, parte bat behinik behin; horregatik, aipatuak, ohoratuak dira baina, berri emaleak dira benetan jakintza atxiki eta zaindu dutenak.

Hasiera batean munduko literaturak ahozkoak ziren eta are gehiago, gaurko literatura idatzia- ren klasiko zenbait urteetan aho- zaho atxiki ziren, liburuetan eman baino lehen. Gure ohiko literatu- ra ahozkoaren adierazpen nagusi- ena BERTSOLARITZA izan da eta bere ezaugarriak nabarmene- na bapatekotasuna.

Denborak desitxuratu egin di- tu gure bertsolari klasikoak, ha- lere, bertsolariaren talentua beti ageri da eta umorearekin gerta- kariak—garratzak eta saminak ere— eztitu egin dituzte.

Bertsolaritzak herrian atxikimendu handia

Bertsolaritzak herrian izan duen, eta duen, atxikimendua ha- gitz handia da, herria bertsozale amorratua izanik, bertsolari on batek aise mugiarazten ahal zuen eta mugiarazten du jende andana.

Hau ezagututa 1977an Male- rrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gaztetxoendako gert- solaritza ikastaroak sortu nahi izan ditu herrietan. Helburu hau betetzeko eskolaz-eskola infor- mazioa eta izena emateko orri- txoa banatzearekin batera bertso hauek zabaldu genituen:



Xaharrak, gaur egun, orohar, bazterturik bizi dira gizartean; halere, haiek dira beren arbasoengatik jasota gure ohiko kulturaren adierazpenak gorde dituztenak

Bertsolari atera hadi

Doinua: Mutil koxkor bat itsu aurreko
Neurria: Hamarreko haundia

Non ote dago bertsotarako Malerrekak duen sena ongi gorderik egon daiteke altxorrikan haundiena lagunak egin, ongi pasatu ezagutu bertso tren a ikastaroa egin dezagun eman ezazu izena hitzak jolas egutea da jolasikan politena.

Doinua: Batetikan korrozka...
Neurria: Hamarreko txikia

Bertsoen inguruan nahi genuke jantzi gure burua kanpo ezin dugu utzi bertsolaritzak badu hainbartz garrantzi lehen zerbait badakigu gehiago erantsi jolas bat bezala da etzazue ahantzi.

Zortzi eta hamabi urte arteko neska-mutikoak izanen dira Bertso- Eskola hauetan ibiliko direnak eta izena eman duten 26 gaztetxo hauek koadroan aipatutako esko- letan bilduko dira bizpahiru hila-

betz, bertsolaritzaren munduan baneratzeko.

Malerrekak, bertsolari gazte- en eskolatzearekin ereindako ha- zia fruitua ematen hasiko delako- an gaude, ez da harritzekoa izan- nen jendeak gero eta bertsolari

gehiago nahi izatea. Honen guz- tiaren gibelean urteetako lana bai- tago, lan historikoa alegia.

Hortaz, zu ere interesatua ego- nez gero jar zaitez harremanetan Mankomunitateko Euskara Zer- bitzuarekin (45 1746, Esther).

Herria	Tokia	Eguna	Ordua	Irakaslea
Beintza-Labaien	Eskola	Astelehena	17,00	Estitxu Arozena
Narbarte	Eskola	Astearte	-	-
Ituren	Eskola	Astearte	18,00	Estitxu Arozena



Bertsolariaren talentua beti ageri da eta umorearekin gertakariak eztitu egin dituzte

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleon Topaketak

62 lagun bildu dira Doneztebeko Juansenean

Eskualdeko Euskara Zerbitzu-
ok euskaltzaleon topagunea izan
ten ari den hitzaldi saioa antolatu
dugu. Jadantik, telebistan, prentsan,
irratietan eta ahoz-ahoz zabaldu
denez denondako ezaguna izanen da.
Halere, zehaztasun gehiago izateko
izena eman duten 62 lagun horietako
bik ematen digute honen guztiaren berri.

Baztan-Bidasoako euskaltzaleon
bilgunea sortzeaz gain, euskararen
erabilera areagotzeko eta normalizatzeko
egiten ari diren zenbait ekimen ezagutu
eta informazio zein prestakuntza tekniko
a jasotzeko aukera dagoela azaldu
digutenez, ezarrita genituen helburuak
lortuko ditugula erraten ahal dugu.



62 lagunek parte hartu dute Baztan-Bidasoako



Ixabel IBARROLA
Bertiz Jaureriko
Ingurugiro zaintzailea

«Euskararen egoera hobetzeko herritarrok gure aldetik gehiago jarri eta erdararako dugun joera aldatzen joan behar dugu»

«1993an egin nuen Soziolinguistika ikastaroa eta orain izena eman dut beti ere, euskararen inguruko mundua interesatzen zaidalako eta hainbat arlotan euskararen egoera ezagutu nahi dudalako. Momentuz, topake-

ta hauekin nire helburu guztiak betetzen ari dira. Gaiak egokiak dira, heterogeneoak izateaz at eskualdeko egoerara egokituak dira eta hizlariak, interesgarriak eta atseginak arruntean. Batzutan gertatzen zait gaiak eta irizpide teorikoak berriak direla eta informazio horren azalpena errazagoa izan beharko luke, hal eta guttiz ere, erabilitako hizkera argia, ulergarria eta nahikoa zehatza iruditzen zait. Bertzaldetik erran behar da, antolakuntza hagitza ona dela eta tokia, orduak eta egunak primeran datozkit.

Orain, hemengo egoera gehiago ezagututa euskararen egoera hobetzeko herritarrok gure aldetik gehiago jarri behar dugula uste dut, eta erdararako dugun joera aldatzen joan behar dugu, euskara erabiltzeko ohiturak sendotuz».

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleon Topaketa hauetatik etorkizunari begira elkarlanerako bideren bat atera daitekeenentz galdegin diogunean, Isabel hagitza baidar azaldu zaigu: «arunt ongi ikusten dut errekarako hiru Euskara Taldeak elkartu eta elkarlanean, auzolanean aritzea; horrela, ez dituzte esperientzia berberak hiru tokitan antolatuko, amankomunean arituko bai-

Zertaz eman duzu izena? Zerk erakarri zaitu?

Horrelako ekitaldiak ez dira maiz izaten gure eskualdean eta aukera probestu nahi nuen. Euskararen gaia berez erakargarria da eta Topaketa hauetan gai pila batekin erlazionatzen delakoz. Halako Topaguneetan irizpide eta esperientzia aunitz entzuten dira eta euskara hainbat arlotan garatzeko ideia berriak ateratzen dira.

Non jaso zenuen topaketen inguruko informazioa?

Euskara Zerbitzutik, Langarraren bidez eta ttipi-ttapatik.

Zein helbururekin hurbildu zinen?

Bertze euskaltzaleekin elkartzeko eta gure eskualdean euskararen egoerari buruzko irizpideak eta proposamenak ikusteko.

Zenituen helburuak bete dituzu?

Bai, eskualdeko euskararen egoera zein den ikusi dugu eta hobetzeko proposamenak ere entzun ditugu; esperientzia interesgarriak ikusi ditugu eta, azkenik, euskararen inguruko teoriak ikasi ditut.

Zer iruditzen zaizkizu gaiak?

Oso interesgarriak. Arlo aunitz hartu ditu: turismoa, historia, komunikabideak, kultura, administrazioa, gure eskualdean duen egoera.

Ezagunak ziren? Edo irizpide



Idoia IRIGOIEN
Cederna-Garalar
Garapen Ajentea

teoriko berriak jaso dituzu?

Batzuk ezagunak ziren, baina ez denak. Erraterako, Txepetxen Teoriaren berririk ez nuen eta arrunt interesgarria iduritu zait.

Zuk zenuen hizkuntz egoeraren ikuspegia egun hauetan jasotako informazioarekin bat dator?

Bai.

Hemengo egoera gehiago ezagututa zer proposatuko zenuke egoera hobetzeko?

Euskararekiko sentsibilizazioa jorratu behar da, jendeak ikusi behar du euskara ez dela bigarren kategoriko hizkuntza. GURE HIZKUNTZA dela baizik, eta edozein tokitan euskaraz egiteko es-

Familia giroa euskalduntzeko kanpaina

Bi fasetan banatuko da

LEHEN FASEA: euskal familia osatzen duzuen guraso guztiei igorri dizuegu zuendako bereziki prestatu dugun **ESKAINZA**, euskara ikasteko edota dakizuena hobetzeko. Honek aukera ematen baitizue zuen seme-alabengatik hurbilago egoteko (ipuinak irakurtzeko, eskola lanetan laguntzeko,...).

Bertzalde, haur eta gaztetxo-en bizitza ez dela eskolara mugatzen ikusi dugu. Ordu gehienak etxean eta karrikan ematen dute lagunekin, jolasean, kirolean,...

Horrexegatik, Euskara Zerbitzuak azpimarra jarri nahi izan dio eskolaz kanpoko jarduerari. Gure herrietan haur eta gaztetxoek aktibitate aunitz (Udal Bideoteka, Bertso-Eskola, Udako Kanpaldiak, Udal Liburutegia,...) egiten ahal ditzutelako euskaraz:

izan dadila euskara zuen seme-alabena-


dako etxean senide eta karrikan adiskide.

BIGARREN FASEAri ekin nahi diogu, zertaz? haurra euskaraz eskolaztearekin bakarrik ez delako ziurtatzen haurra euskaldun oso eta kulturalki erroturik hezitzea; honi laguntzen ahal dion eta guziendako eskuragarriak diren bertze faktoreak ere kontuan hartu behar dira.

Arestian, eskolaz kanpoko jardueraz mintzatu natzaizue, oraingoan berriz, haur eta gaztetxoendako aisialdiko zerbitzu zein produkto-

en eskaintza ezagutzera eman nahi dizuegu. Euskarazko produktoen zerrenda luzea da, baina sailkapena haxe litzateke: jokuak, jostailuak, bideoak, aldizkariak, informatika, musika, liburuak, krismak, agendak,...

Guiz honen informazioa orain eskuratu anhi izanez gero deitu 451746 telefonora (Esther) edo etorri Donezteben kokatuta dauden Malerreko Mankomunitateko bulegoetara.





«Euskara betiko mintzoa» erakusketa

Urriaren 26tik azaroaren 2a artio burutu da

Urriaren 26tik azaroaren 2a artio "Euskara betiko mintzoa" erakusketa burutu da Doneztebeko Kontzentrazio eskolako gimnasioan. Eskola umeek astegunetan ikusi ahal izanen dute eta heldu eta herritar guziak, berriz, asteburuetan. Gaiak, honako hauek: 1.- Hizkuntza eta kulturaren elkarbizitza Nafarroako historian. 2.- Euskal toponimiaren mugak.

- 3.- Euskara eta Nafarroako erre-
suma.
 - 4.- Euskara eta eliza.
 - 5.- Deseuskalduntze prozesua.
 - 6.- Itxaropenez beteriko etorki-
zuna
- NOLAKO MUNTAIA:**
- 1.- Gai bakoitza panel handi batez
eta CD-Rom batez garatzen da.
 - 2.- Ikusentzuneke muntaia.
 - 3.- Gida didaktikoa.



aleon Topaketetan

kubidea dutela jakinarazi.

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleon Topaketa hauetatik ikusten duzu etorkizunari begira elkarlanerako bideren bat ateratzen ahal dela?

Nire ustez, argi dago zerbait lortzeko elkarlanean ibili behar dugula. Topaketa hauetan gainera, adibide zehatz bat ikusi dugu: Zerain, 200 bizilagun duen herri batek sekulako lorpenak egin ditu elkarlanean, auzolanean.

Zer iruditzen zaizu antolakuntza? Zer aldatuko zenuke?

Ongi antolatua dagoela uste dut. Gaiak eta hizlariak interesgarriak dira eta gainera, emandako dokumentazioa oso baliagarria.

Tokia? Egunak? Ordua?

Juansenea toki egokia iruditzen zait zeren eta horrelako gauzetarako prestatua dago eta eskualdeko erdigunean kontuan izaki Baztan-Bortziriak eta Malerreko jendeak parte hartzen ahal du. Egunak eta orduak ere ongi daude.

Oharrak, kritikak, iritziak, proposamenak, ... faltan izan dezuna?

Euskararen egoera eguneroko bizimoduaren (familian, lagunartean, dendan...) zein den jakitea gustatuko litzaidake. Musika eta euskara gaia ere interesatzen zait. Hurrengo noiz?

«Merkataritzan euskaraz» egitasmoa

1994ean hasiz geroztik honetan jardun gara:

- Establezimenduaren egoera soziolinguistikoa eza-gutu eta gero urte-tik-urtera izandako aldaketak begiratu, ezagupena eta erabilerrari dagokionez.
- Ikastaroen eskaintza

Merkealdiak

arrunta eta bereziak: euskaltegiko eskaintza orokorra eta dendariei zuzendutako eskaintza berezia.

- Itzulpenak eta material itzulia eskeini: lehendik eskatutakoen erabilpena eta iraupena aztertu, eta establezimendu berrien beharrak aztertu ondotik eskaintzak egin.

- Propagandaren jarraipena: Gabonetakoa, postontzietakoa, ...

- Aurten argitaratu berria den Merkataritzan Euskaraz liburuaren eskaintza, liburuaren egokitasuna azaldu eta nahi izanez gero liburuaren nola erabili azaltzeko ikastaroa egin.

Urtero bisitak eginez, orrialdearen goiko aldean ageri den koadroa (I) urrats hauek jarraitzen ditugu.

Zeintzu dira Mankomunitateak egiten dituen eskaintzak?

I.- ITZULPENAK: Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta zuzenketa-zerbitzuaren bidez, idatziak euskaratzea. Urte osoko zerbitzua dohainik.

2.- EUSKARAZKO KLASEAK:

Urtero aztertzen da luzatu beharreko eskaintza: euskaltegiko ohiko klaseak Mankomunitateak emandako laguntzekin, Euskara Komertzialari buruzko ikastaro laburrak eta ordutegi murriztekoak.

3.- Merkataritzan Euskaraz liburuaren aurkeztu eta beronen inguruko ikastaroa eskaini.

4.- Ohiko materialak: Irekita/itxita txarteltxoak, «Merkealdia» txartela, Inprimaki ereduak: fakturak, albaranak, gabonetako loteria,...

Oraindik orain datu bilketan jarraitzen dugu, nahiz eta emaitza orokorrak baditugun:

Itzulpeni dagokionez, bi establezimendutik batek itzulpenak es-

Irekita

katu ditu, %50k eskatu ditu beraz. Ikastaroari dagokionez, izena eman dutenak, beheko aldean ageri den koadro (2) horretako ikastaro hauetara joan dira:

Beraz, izena eman nahi duenak oraindik aukera dauka 451746 telefonora (Esther) edo 451555 (Euskaltegia) deituta.

Animatu eta ez galdu aukera hau! Merkataritzan Euskaraz liburuari dagokionez, 15 liburu saldu dira Malerrekan; dena dela, ez du iduri honi bu-

ruzko ikastarorik sortuko denik momentuz.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkizue egitasmoan sinistu eta parte hartu duzun guztioi. Eta akitzeko, HERRITARRAK animatu nahi ditugu LEHEN SOLASA euskaraz egin dezaten.

Ordutegia

1. koadroa	
URRATSA	DEFINIZIOA
Proposamena finkatu	
Materialak prestatu	Sortu beharreko material berria sortu eta behar dena diseinatu, eta sortu.
Urtean zeharreko aitzinpausuak	Herriz-herri, gehienbat itzulpen eskaintzaren jarraipena.
Aurkezpena	
Matrikulaziorako deiak	Guttunak
Klaseak	Ohiko klaseak eta bereziak
Bisitak	Eskaintzak egiteko
Balantzea	Lanaren balantze-txostena eta jarraipenerako urratsak.

2. koadroa		
URRATSA	EGUNAK	ORDUAK
I. urratsa	Astelehena, asteartea, ortzeguna, ortzirala	15:00-17:00
III. urratsa	Astelehena, asteartea, ortzeguna	15:00-17:00
VI. urratsa	Astelehena, asteartea, asteazkena, ortzeguna	17:30-19:30
Alfa	Astelehena, ortzeguna	15:00-17:00
Aurre EGA	Astelehena, asteartea, asteazkena, ortzeguna	18:00-20:00
EGA	Larunbata	9:00-13:00

Herri kirol jaialdi ikusgarria izanen da arratsaldean

Azken urteotan bezalatsu, Feria Eguna behar bezala akitzeko, Herri Kirol jaialdia antolatu du Nafarroako Federazioak, Doneztebeko Udala, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua eta Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz.

Arratsaldeko 5etan hasiko da jaialdia frontoian, eta bertan jokatuko diren Nafarroako hiru txapelketaz gain, berriki Nafarroako txapeldun eta txapeldun orde suertatu diren bi aizkolarien arteko desafioa ikusgai izanen dira.

Bigarren mailako aizkolarari txapelketa


Nafarroako bigarren mailako aizkolarari txapelketa jokoan izanen dute Luis Mari Belarrak (Doneztebe), Jesus Etxeberriak (Beintza-Labaien), Martin Jaun-

sarasek (Almandoz), Manuel Kañamaresek (Arostegi) eta Jose Luis Telletxeak (Beintza-Labaien). Hauen lana, bi kanardiko, 60 ontzako bi enbor eta oinbiko bat moztea izanen da.

Arpanlariak gero

Nafarroako bigarren mailako arpanlari txapelketa ere jokatu da. Honetan, Eduardo Goikoetxea eta Iñaki Zazpe (Etxauri Harana); Miguel Angel Albisu eta Imanol Miranda (Lakuntza); Joseba Oiarzun eta Jose Ramon Barberena (Ultzama) eta Jose Luis Cano eta Jose Manuel Goldarazena (Berriozar) arituko dira, 105 zentimetroko enberrari 10 korte etzanda eta 4 zutik lehenbailehen eman nahiean.

Gero, emakumezkoen txanda izanen da arpanean eta hauek Nafarroako txapela izanen dute jokoan. Patrizia Lopez de Zubiria eta Sara Larraga (Lakuntza); Idoia Moneo eta Begoña Armendariz (Etxauri



Harana); Miren Josune Razkin eta Natalia Razkin (Lakuntza) eta Imelda Larraia; Amaia Berasain (Ultzama) eta Beatriz Beroiz eta M^a Jose Lekunberri (Berriozar) arituko dira. Hauen

lana, 45 ontzako enberrari 10 korte etzanda ematea izanen da.

Desafio handia, azkenik

Halere, herri kirol eta, batez ere, aizkora zaletuek gehien esperatuko duten norgehiagoka, Donato Larretxea eta Floren Nazabalen artekoa izanen da, seguraski. Hauek kanako enborra moztzen egiten dute desafioa eta berriki Nafarroako txapelketa nagusian biek erakutsi zuten indarra ikustea espero da. Orduan, nahiko berdinduak ibili ziren biak, nahiz eta azkenean arantzarra gailendu. Oraingoan, ordez, Etxarri-Aranazkoa errebantxaren bila joanen da, duikabe.

MENDI
ALMACENES **TXURI**

- Etxegintza eta burdindegi materialak
- Zeramikak
(Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)
- Teila frantsesak (Guiraud, TBF)

Tfnoak: 45 03 05 / 45 00 68
DONEZTEBE

MAITE ileapaindegia
GIZON eta EMAKUMEENDAKO
Solarium-a
Mourges Etorbidea 4, ☎ 451780 • **DONEZTEBE**

MENDAKUR PENTSUKAT
Purina
etor zaitez ikustera

- Ardi, ahuntz, behi, etabarren parasitoak hiltzeko pentsu bereziak
- Pentsu konpuestoak, luzerna eta zerealak
- Hegaztiak
- Laguntza animallendako janaria
- Kaiola eta tolbak

Aparan Pol. 2, 3 • © 451845 • **DONEZTEBE**

Ostrukak: «...eta hori nola jaten da?»

Joan den urtean, Doneztebeko Feria Egunean ikusi ziren bitxikerien artean, Ultzamatik ekarritako ostrukak izan ziren. Orduan «azienda» berria zena, gaur egun azienda hedatua da gure eskualdean (tti-pi-ttapa, 203 zenbakia).

Oronoz aldean, Etxotoa baserrian paratu dituzte lehenik. Bertako nagusia den Kiriko Oteizaren erranetan, hegazti honetatik «dena probexten da: lumak zamarrak egiteko; larruak ere sosa haundia balio du, bolt-sak egiteko-eta erabiltzen da; eta haragia ere ongi saltzen da».

Ostruka eskualdean sartzeko bultzatzaile izan den Bittoriano Jauregiren ustez «ostrukaren haragia solomillo edo azpizunaren gisakoa da, baina kasu eman behar da sobera erre gabe, bertzenaz idortu egiten baita».

Behin hazitakoan, hamabi edo hamahiru hilabete dituztenean, saldu egiten dituzte, baina ezin dira edozein hiltegrira



eraman, «ostrukekin zer egin jakin behar dute han, nola hil eta nola apaindu behar diren, bertzenaz balorea galtzen dute». Kiriko Oteizak, Donostiako hiltegi batera eramaten ditu bere ostrukak.

Bi metro bitarte neurtzen duten hegazti hauek berez Afrika-koak dira, Namibia eta Zimbawe ingurukoak, baina ongi laketzen dute inguru honetan, hemengo eguraldi euritsuan ongi moldatzen baitira.

Ostrukak, berez Afrikako hegaztiak baldin badira ere, ongi laketzen dute inguru euritsu honetan

Arg.: KARMELE

 **TALLERES**
RENAULT SANTESTEBAN
LEITZAKO BIDEA Z/G, DONEZTEBE
TFNOAK: 45 02 82 - 45 05 97 • FAXA: 45 08 57

 **PATXI ZAMORANO**
• Bernizatze-kabina
• Pintura lanak orokorrean
Leitzako bidea • © 450734 • 989 57 54 01 • DONEZTEBE

tti-pi-ttapa
Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...


Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo!
Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© 631188

 **Maderas Zabala, S. A.**

- ▷ BERTAKO ETA INPORTAZIOKO ZURAK • OIHAN ESPLOTAKUNTZAK
- ▷ ZERRATEGIA • LEHORTEGIA (HARITZ ETA PAGO FRANTZIARREAN ESPEZIALDUAK) • RASTRELAK • HARITZETZKO KAPIRIUAK
- ▷ EGUR ETA ZUREZKO BARRAK GORTINENDAKO • KIDERRAK

Tfnoa: (9)48 - 45 01 35
Faxa: (9)48 - 45 04 98
31740 DONEZTEBE



TELLETXEA
MOBLEAK

Rosa Seminario z/g
Tfnoa: 45 02 58
DONEZTEBE

*Feria zoriontsuak
opa dizkizuegu*



EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129
INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77 76 96
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

• DENIA •



• APARTAMENUAK. Erresidentzia zonaldea, hondartzaren lehen lerroan. Jardinak, piszinak...

• BENIDORM •



• Apartamentuak, hondartzaren lehen lerroan, terraza, jardinak, instalazioak: piszinak, mini-golf, tenis pista, haurrenako parkea...

• GUARDAMAR •



• Hondartzatik 300 metrora, estudio ederrak eta apartamentu mobleztatuak dituen eraikuntza.



• BUNGALOW URBANIZAZIOA. Hondartzaren bigarren lerroan.



TORRECASA

URBANIZATZAILEA, ERAIKITZAILEA eta PROMOTORA
HONDARTZETAKO ETXEBIZITZETAN LEHEN ENPRESA

*Informazio gehiagorako bisita gaitzazu
Alacant-eko Kostaldean (Kosta Txuria)
3.950.000 pezetatik goiti*

• ALACANT •



• Txalek indibiduala, zuretzat propio eraikia, zerorrek aukeratzen duzun tamainu eta diseinuarekin.
• Erresidentzia zonaldea, luxuzko apartamentuekin, hondartzatik oso hurbil eta bertara iristeko erreztasun guziekin.

• TORREVIEJA •



• Estudio ttikitik hasi eta txalek indibidual zabala bitarteko guzia daukagu: txalek adosatua, duplexak eta bungalow zoragarriak.

AMEZTIA

Hostala-Ostatua-Jatetxea



**Ferietarako
menu berezia**

**Igande arratsaldetan, taloa gazta, txistorra, txokolataarekin...
serbitzatzen eta eramateko prestatzen dugu**

**Denboraldi honetarako plater konbinatu, sandwich,
kaxuela, bokata eta etxeko postreen karta berria
Zure neurriko hameketakoa edo afari-berendua daukagu
Egunero zabalik, goizeko 6etatik aitzinera**

PLATER KONBINATUAK

- 1** Solomoa, patatak, piperrak eta arraultzeak
- 2** Urdaiazpikoa, patatak, arraultzea eta tomatea
- 3** Xerra, patatak, piperrak eta kroketak
- 4** Bildots txuletilak, patatak eta letxuga
- 5** Aretze txuleta, patata eta piperrak
- 6** Hirugiharra, arraultzeak, patatak eta piperrak
- 7** Saltxitxak, patata, errusiar entsalada eta arraultzeak
- 8** Entrekot, patatak eta entsalada

SANDWICHAK

- Urdaiazpiko eta gazta
- Begetala
- Urdaiazpikoa, gazta eta arraultzea

KAXUELAK

- Tripakiak
- Bildots barrenkiak
- Zerri-patak
- Onddo nahaskia
- Baratzuri eta ganba nahaskia
- Ajoarriero
- Bakailua bizkaitar erara
- Piper beteak

OGITARTEKOAK

- Solomoa, gazta edo piperrekin
- Urdaiazpikoa
- Urdaiazpikoa tomatearekin
- Txistorra
- Tortilla ezberdinak
- Xerra
- Saltxitxak
- Hirugiharra gaztarekin

ERRAZIOAK

- Iberikoak (urdaiazpikoa, txorizoa, xolomoa)
- Fritoak aukeran
- Kalamarrak
- Patata frijituak
- Etxeko pateak
- Etxeko txistorra eta txorizoa
- Bertako gazta menbrilloarekin

ETXEKO POSTREAK

- Kanutilloak
- Tartak aukeran (gazta, sagarra...)
- Natillak
- Arroz-esnea
- Flana izozki edo esnegainarekin
- Piku biscuita txokolataarekin
- Mamia (denboraldian)

ZUBIETA

Haurrak estalpean biltzeko proposamena

Zenbait gurasok idatzia aurkeztu dute Udaletxean

AINHOA MUTUBERRIA

Berriz ere negua heldu da. Jakina da, normalean tenore honetan eguraldia arraso aldatu egiten dela. Helduak nolabaitere moldatzen dira, baina umeak ez hain aisa, aspertu egiten baitira. Hotza egiten duela eta, gizarajoez etxean gelditu beharra izaten dute eta igual-igual euria egiten badu ere.

Egia da etxean bezala ez dela inon egoten, baina kanpora atera behar izaten da lagunekin egoteko eta, zergatik ez, haizea hartzeko ere bai. Horrexegatik, herriko haur batzuen guratsoei zera gogoratu zaie: estalpe barrena arrunt toki ederra dela umeak han biltzeko. Dudarik gabe, arduradunen bat izanzen litzateke. Hagitz ideia ona da txikientza-



Herriko haurrek, neguko egun hotzetan jostatzeko lekua behar dute

Artxiboa

ko; zaila aurrera eramateko, ordea. Hala bada, den dena fundamentuz egiteagatik Udaletxera idatzi bat bidali dute, ea udalak be-

re baimena ematen duen. Orain erantzuna zein den esperatu egin beharko dute, eta haren arabera, ikusi beharko zer egin.

Euskararen Eguna

Egun ederra izan zen, hasi eta buka. Jooaldunak, bertsolaria, dantza luzea eta 80 bat lagun bildu ziren bazkarian.



Talleres Eder

Citröen agente ofizial berria

Donezteben



Zatoz **CITROËN XSARA BERRIA** ezagutzera gure erakusketara. Eta baita turismo eta auto industrialen gama osoa ere.

Citroën-ek Agente Ofizial berria izendatu du Donezteben.

Etetik hurbil Citroën gama osoa ikusgai edukitzeko, eta aldiberean, abantaila eta zerbitzu guztiak aprobetxatzeko:

- Grua egun osoan.
- Mekanika-elekttrizitatea, txapa-pintura edozein autorentzat.
- Autoak errentan, 1.275 pta/eguneko.
- **Eurocasión** ibilgailuak guttienez urte bateko **garantiarekin**.



Gure garantiarekin

Cirmauto
Zaragoza Etorb.
Tfnoa.: 24 93 00. Iruñea



GOIZUETA

Hogeita sei urteotan laurahun biztanle baino gehiago galdu ditu herriak

Hiru etxebizitzetatik bat hutsik dago, estadistika berean ageri denez

ESTEBAN AROZENA

Kaleratu berria den Nafarroako populazioaren Estadistikak dioenez, 1970ean baino 438 biztanle gutxiago zituen herriak 1996an. Kontutan hartuz gero orduan 1.387 zituela eta iaz 949, portzentailetan hiru biztanletik bat galdu ditu Goizuetak azken hogeita sei urte hauetan.

Mendearen hasieraz geroko datuak datoz estadistika honetan. Horrela ikusi genezake, 1900. urtean 1.111 lagun bizi zirela herrian; 1950ean 1.383; 1970ean harrapatu zen gailurra, lehen esandako kopuruarekin; eta hemendik aurrera hasten da beharakada geldiezia: 1975ean 1.271, handik sei urtetara, 1.157; 1986an 1.074; eta 1991n, 965 biztanle.



Populazioaren kontuekin bukatzeko esan beharrekoa da, iazko

949 biztanleetatik, gizonetzkoak 512 zirela eta emakumezkoak, be-

rriz, 437. Hemen ere ez dira oso parekatuak ageri herriko kopuruak.

Bertso eskola

Xabier Legarretak zuzentzen duen bertso eskolako haurren kopurua igo egin da aurtengo ikasturtean. Hamartik hamairu urte bitarteko hamabost neska-mutiko elkartzen dira larunbatero guraso elkartearen egoitzan, beraien bertsoarako dohaiak landu eta hobetu asmoz.

Arg.: Esteban

Herriko Etxebizitzaren kopuruari buruzko datuak ere ematen ditu estadistikak, eta ez dago onak direla esaterik, hiru bizitzatik bat hutsa baitago Goizuetan. Gehiago zehaztuz ikusi liteke, 267tan jendea bizi dela, baina beste 124 huts-hutsak daude.

Sasiak erretzeko baimena

Aurtengo neguan larraz eta sasiak erre nahi dituzten guztiei, aurretik udaletxean baimena eskatu behar dutela adierazten zaie kaleratu berria den bando baten bidez. Urriaren 11n ireki zen horretarako epea, eta azaroaren 11n itxiko omen da. Baimena eskatzen ez duena salatu izanen dela esanez bukatzen da Herriko Etxetik datorren ohar hau.

ARESO

Eskolako lanak uste baino garestiago

Aurrekontua baino bi milioi terdi gehiago

JUANA M^a SAIZAR

Eskolako gimnasioa, gela eta trinketearen lanen aurrekontua 6.200.000 pezetakoa zen, baina lanetan izandako ezustekoengatik, bi milioi terdi gehiago kostako da. Beraz, %70eko subentzioa, hau da 1.750.000 pezeta ko-

bratuko du udalak, Hez-kuntza Sailetik.

Kirol eta Gazteria institutuari eskatu zitzaion dirulaguntza eta lehenik baiezkoa eman bazuen ere, azken momentuan dirulaguntza ukatu dute, trinketeak neurriak betetzen ez dituelako eta dagoeneko %70eko subentzioa bes-

te leku batetik hartua delako.

Udaletxearen konponketa

Udaletxea konponzeko dirulaguntza eskaria onartu dute Iruñean eta 14 milioikoa izanen da, gehienez. Hemen egin beharko diren lanak, teilatua, barreneko



Udaletxea konpontzeko eskaria onartu dute

eskailera eta kanpoko zurgindegi lanak izango dira. Proiektua abenduaren 23a baino lehen aurkeztu behar da.

Bestalde, Eluseder-Muñoandi inguruan, pinu entresaka adjudika-

tu zaio *Central Forestal, S.A* lantegiari, 1.300.000 pezetan. Gerora, Merku inguruan, *entresaka* edo oihan bakantzea edo bestela, *matarrara* egingo dute.

Zine denboraldia datorren ostiralean hasiko da

Igerilekuak moldatzeko lehiaketa zabaldu du udalak



Asketa Abesbatza Poloniatik bueltan

Asketa abesbatza Poloniatik etorri berria dugu, 11 egun hain igaro ondoren. Zielona Gorako unibertsitateko abesbatzak konbidaturik, aipaturiko hirian, Wroklaw eta Krakobian bost kontzertu eskaini zituzten. Poloniako Abesbatzaren partaideak otsailean izan ziren gure artean eta haiek hemen bezala, leizarrak poloniarren etxeetan egon dira. Eta ongi zainduak egon ere. Abesbatzako kideek oso gustora ibili omen dira. Hiri ezberdinetan izan dira, eliza, museo eta katedralak bisitatu dituzte, gatz mehategi bat (barruan kapilla eta guzti zuena) ikusi zuen, baita Auschwitzeko kontzentrazio eremuak ere. Azken bisita hau ziragarria omen da. Kontzertuak oso arrakastatsuak izan ziren: jende asko joan zen entzutera (hiri baten bateko alkatea ere, ongi etorria ematera), eta asko gustatu omen zitzaizkien eskaintakoa. Euskaraz ez ezik, kanta bat poloniarrez ere kantatu omen zuten. Berriz joateko gonbidapena jasota etorri dira. Baita Bielorrusiako ere. Nork daki? Do widzenia Polonia?

JOSEBA AZPIROZ

Datorren ostiralean hasiko da aurtengo zinema denboraldia. Pelikula estreinatu berriak ikusteko eta hainbeste gustatutako hura berrikusteko aukera

ederra. «*Perdita Durango*», «*Air Bag*», «*Fargo*», «*Secretos del Corazón*», «*Carne Trémula*», «*Michael Collins*»... ikusi ahal izanen ditugu, besteak beste. Ordutegia ez da aldatu, beraz, ostiraletan

10etan eta igandetan 7etan izanen dira proiezioak eta umeentzat berriez, igande arratsaldez 4,30etan. Eta ordaindu, aurreko urtean adina. Aprobetxa eta disfrutatu. Denboraldiari hasiera emateko, «*Air*

Bag» pelikula aukeratu dute (umeentzat «*Matilda*») eta azaroaren 14 eta 16an, «*Fargo*» pelikula eskainiko digute (umeentzat «*Mars Attacks*»).

Bestalde, zineko 'taberna' ren erabilera eskatu nahi duenak, Udal idazkaritzan egin beharko du azaroaren 11ko eguerdiko 12ak baino lehen. Batek baino gehiagok eskatzen badu, zozketa egingen dela iragarri du alkateak.

Igerilekuak moldatzeko lehiaketa zabaldu du udalak

Leizako udalak igerilekuen birmoldaketa lanetarako lehiaketa publikoaren deialdia egin du. Aurrekontua 25,6 milioikoa da eta bost hilabeteko epea izanen da lanak burutzeko. Igerilekuei erabilera hobetuz emateko eta errentabilitate altuagoa lortzeko, estaltzeko aukera ikeru da baina Nafarroako Gobernuak dioenez, horrelako instalakuntzek mantenimendu gastuak oso altuak izaten dituzte. Horregatik, oraingoz, moldatu egingen dira baina, beti ere, nozibait estaltzea pentsatuz gero, egingen diren lanak baliagarriak izanen dira.

flash

- ◆ **Nafarroa Oinez**
Herritar asko izan zen aurtun Tafallan, Nafarroa Oinezeko festan. Kotxez joaten direnei, aurtun Irauli gazte asanbladak antolatutako lau autobusetan joandakoak gehitu behar zaizkio.
- ◆ **Eskolako sukaldariaren jubilazioa**
Makina bat otordu prestatu izan ditu Maria Berasategik Leizako eskolan. Makina bat asezin asetu ere. Orain, jubilazioarekin, disfrutatzeko garaia etorri zaio. Horrela izan dadila urte askoz.
- ◆ **Leizaldeko Gizarte Ongizate Zerbitzua**
Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Ongizate Zerbitzua-ren Mankomunidadeak bi langile berri kontratatu ditu bere azken batzar orokorrean: Blanca Esther Odriozola Arribillaga administrari laguntzailea izanen da eta gizarte laguntzailea, berriz, Virginia Eraso Barrio.

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

muñeca de Trapo

IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Cofes-Haizearen zerbitzuak berdin segitzen du momentuz

Jendeak agertutako elkartasuna eskertu dute langileek

JOSEBA IGARABIDE

Cofes-Haizea Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroak bere zerbitzuak berdin eskaintzen segitzen du, momentuz. Gerora, ordea, ez da segurua zer gertatuko den eta, honebertez Heziketa programa guziak (gazte programa, norbere burua ezagutzeko programa, etab...) zailtzean daude. Oraingoz, langilegoa ere mantentzen da, lehen ari ziren berak ari dira. Langile hauek, jendeak eskaintutako laguntza eta adierazitako elkartasuna eskertu nahi dute. Gogoratuko duzuen, sinadura biltzeta ere egin zuten eskualde osoan eta hainbat firma biltzeta loru zuten.



Udazkeneko feriak

Aurtengoan ere gan zaizkigu, animazio ederrarekin gan ere. Batzuen erranetan jende gutxiago izan da aurtan, baina, halere, jende ausarki ibili da Elizondoko karraketan. Nola ez, Merkatu Plaza ere aziendaz eta adin guzietako jendeaz gainezka egon zen, argazkian ageri den bezala. Pena bakarra, Mikel Goñik Elkororen kontra -frontoia 900 ikuslerekin bete zegoelarik- jokatu zuen partidua ez irabazi izana. Hurrengoan beharko! Postuak saltzetik bi milioi pezeta eskuratu du Elizondoko herriak eta Baztan ikastolak zozketatutako pottoka 4.432 zerbakiari egokitu zaio.

Argazkia: Karmele

V. Pintura lehiaketa Erratzun

Igande honetan, azaroak 2, Erratzun Baztango V. pintura lehiaketa aire zabalean burutu da. Lerro hauek idazterakoan ez da jakiterik zenbat izan diren partehartzaileak, baina aitzineko urtetan errelista izugarria izan du lehiaketa honek. Gaia *Erratzuko xokoak* izaten da eta sariak 60.000 eta 30.000 pezetaokak bi lehenbizikoentzat eta

haurrendako margoketarako materiala. Etxelebertzeko Txokoak antolatzen du Balleko Etxearen laguntzaz.

Baztango Musika eskolako...

1997-98 ikasturterako tasa ezberdinak onartu ziren azken batzarraren. Honekin batera, subentzioa eskatu zaio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultur Sailari.

Herri lurretan bazkalekuak sortzeko eta hobetzeko lanak egingen dira

Herri lurretan bazkalekuak sortzeko eta hobetzeko lanak lehenbailehen egitea onartu zuen Balleko Etxeak azken batzarraren. Lanen aurrekontua 17.290.264 pezetakoa da eta Montxea, Auzkue, Osabat, Basarte, Lendari, Mar-

tintonea, Etxeberea, Otxaski, Mandatxen, Etxoto, Juanikot, Sustxulu, Putzualde eta Eder alderdian egingen dira.

Lanak zuzenean adjudikatuko dira, aldeztuetatik gutienez hiru aurrekontu aztertu eta gero.

flash

Jaiotzen ikastaroa

burutuko da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Aurrekontua 119.000 pezetakoa izanen du.

Erakusketa gidatua

«Txotxongiloen artea» izeneko erakusketa gidatua burutuko du Corrado Masatti taldeak abenduaren 9tik 20ra Arizkunenea Kultur Etxean. Erakusketaren aurrekontua 179.000 pezetakoa da.

IX. Onddo eta Perretxiko Astea

ospatu da. Solasaldiak, heldu nahiz haurrendako; erakusketak... izan ziren, Balleko Etxea, Gorosti elkarte eta Nafarroako Gobernuak, zenbait ikastetxeren laguntzaz antolatutako ekitaldi honetan.

Euskal Herriko Bertsolari txapelketa

Igande honetan, azaroak 2, Bittor Elizagoien arraioztarra aritu da Zarauzko kanporaketan. Bera da Baztango ordezkaria bakarra aurtengo txapelketa honetan.

Hiketari solasteko ikastaroa

ortzirale honetan, azaroak 7, hasiko da. Bi orduko saioak izanen dira ortziraleroko.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería calefacción
Empresa colaboradora de
REPSOL
AUFANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • **ELIZONDO**

BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGIA:
Astearte eta ortziral goizetan,
10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • **ELIZONDO**

Belateko tunelak datorren astean zabaltzea espero da

Lanen aurrekontua eta errepidearen zabaltzea dexente luzatu dira

PABLO MENDIBURU

Azkenean dena prest omen dago datorren astean Belateko tunelak inauguratzeko. Jakin dugunez, adornotarako zaldiak paratzeaz gain, rau radar segurik omen daude tuneletan ongi altxaturik. Abiadura ez da orduko 80 kilometro baino gehiagokoa izaten ahal. Hori ez bada errespetatzen, radar hauek argazkiak ateratzen omen dituzte eta...

Jakina denez, lanak aspaldian akituak egon behar zuten, baina bai denbora aldetik, baita diru aldetik ere, dexente *luzatu* da errepide berriaren zabaltzea. Uda honetan, bat baino gehiago tuneletatik pasatzen hasi zen, oraindik trafikora zabalik ez bazeuden ere. Horrek sortzen zuen arriskuaren ondorioz, isunak jartzen hasi ziren. Geroztik, Nafarroako Gobernuan ere lanen biberatzei buruzko galderak egin izan dira, erantzun garbirik gabe. Ea oraingoan tunelak zabalik ikusten ditugun.



Zenbait errepide zati aspaldian zabalik badaude ere, Belateko tunelak datorren astea irekitzea espero da

Artxiboa

Folk Ametsetan

Igande honetan hasi zen Arizkunenean *Folk Ametsetan* programako kontzertu zikloa, Joseba Tapia eta Ruper Ordozik eskainitako emanaldiarekin. Datorren igandean, azaroak 9, *Tapan Group* Indiako musika eta dantza ikuskizuna izanena da eta azaroaren 16an, *Rakoto* Madagaskarreko musika taldea. Emanaldi guztiak arratseko 8etan izanen dira.

Hirurteko Planean sartutako zenbait proiekturen idazketa

1997-99 Hirurteko Plangintzan Nafarroako Gobernuak onartutako zenbait lanen proiektuak egitea agindu du Balleko Etxeak.

Zehazki, Almandozko ur-hartzea, eramatea eta depositoa egiteko proiektua *Ingenieria Civil Macla, S.L.* enpresak idatzi du; Iturri-Ede-rra eta Landaberroa inguru-
etako elektrifika-

zio lanaren proiektua *Iberdrolak* eta Iruritako hiru karrika zolaberri-tzeko, Zozaiako plaza-
ren urbanizazioa, Arraiozko karririk eta Erratzuko Iturritzar karririk eta frontoia mol-datze-
ko lanen proiektua *Arco* enpresak. Proiektu guzti hauek urriaren 31rako aurre-
keztu beharrak ziren Balleko Etxean.

flash

Bizi-web

proiektuarekin bat egin du Balleko Etxeak. Udal erakundearen ustez, proiektu honek kultur interesa dauka herriko artista eta artisauntzat.

Zaborrak

Maringo zubitik botatzen direla eta kezu daude hurbilean bizi direnak, ingurugirorako txarra izateaz gain, usainak eta zikinzeria areagotzen baita.

San Martin Berroetan

Datorren astelehenean, azaroak 11, San Martin besta ospatuko dute Berroetan. Urtero bezala, meza ondotik merendufarie egingen dute Gure Ametsa elkar-
tean.

Zigan

eliza inguruan losak jartzen ari dira auzolan-
ean. Joan den astean, ortzegunean, kanposaindua garbitzen aritu ziren, Domisaindu Egunerako txukun eta ederra ager zedin.

Oronozko eskola

egiteko proiektu lehiaketara hiru proposamen aurkeztu dira.

Hamar urte baino gehiago zure zerbitzuan

Zergalan Asesoria, S.L.

Akullegi, 3 - 2.A

☎ 580 335

ELIZONDO

Ordutegia: Astelehenetik Ortziralera, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.

■ Auditoriak

■ Zerga Aholkularitza

⇒ Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...)

⇒ Elkartek gaineko Zerga

■ Ekonomia Aholkularitza

⇒ Bideragarritasun ikerketak

⇒ Koste ikerketak

■ Kontabilitateak

■ Nominak, Aseguro Sozialak

■ BEZ (IVA)

SARA

Uso besta kari, Urruña eta Oiartzungo gizonen eta idien arteko zoingehiagoka

Hogoita bortz kintaleko harria garraiatu dute oren bat eta erdiz

MIXEL ETA JACQUELINE

Aspaldiko denboretan Sarako plazak ez zuen behi uztarturik ikusi eta are gutiago idirik. Bainan urriaren 19an, uso besta kari eta bertze zonaitekitaldiren artean, Oiartzungo Koxe Sarrazolaren idiak hor ziren eta zer kariatz? Zoingehiagoka bat antolatua zen Urruña eta Oiartzungo sokatiralarien eta idien artean; alde batekoak eta bertze koak hogoita bortz kintaleko harria garraiatu dute oren bat eta erdiz eta bi gizon taldeen balentriak bateratuz berrogoi itzulitarat heldu dira.

Idiek aldiz, berrogoita hiru egin dituzte. Ikusgarri hunek jende ainitz bildu du. Badakizu berritasuna zoin errekiatsua izaten den eta goxo da ere!



Bestak adinekoak eta haurrak elkar lezazke

'Eskuz esku' Zahar Etxeko elkarteak antolatuturik, urriaren 24 hontan polikiroldegian Erramun Martikorena-ren entzuteko parada izan genuen. Adinekoak hor balinbaziren, hiru eskoletako haurrak ere hurbildu ziren gomitari erantzunez.

Koxe Sarrazola oiartzuarrek plazaratutako idi ederrak

Herriak egin edo egin behar dituen gastuak

M. ETA J.

Berrikitan herriak pala haundidun traktorea aldatu behar izan du. Tresna zaharra 72.360 liberetan utzi dute eta berria 370.240 liberetan hartu dute.

Bertzalde, Lur Berri Kope-

ratifa plazatik Portuko Lanze-laierat joanen da.

Herriak lehenagoko erai-kuntza eskuratzeagatik berri bat egitea Portuko aldean bere gain hartu du. Beraz, hunen altxatzeko dei zabal bat egin du etxegintzan ari diren lantegieri eta

hiru erantzun erdietsi ondoan, bi egokienak hautatu dituzte. Hargintza lana Sarako Iriarte lantegiak egin du 318.245 liberaren truke eta burdinezko zurgintza Heletako Baigura lantegiak, 195.745 liberatan. Orotara, beraz, 513.990 liberen gastua.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

MENDIALDE
Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • ☎ 45 30 60



**teléfono bakarra
zure larrialdi
guztietarako**

SOS Nafarroa

berehalako erantzuna



**Nafarroako
Gobernua**

Lehendakaritza eta
Barne Departamentua

EZKONTZAK

Fernando Jose Ballarena Iturregi eta **Ana M^a Telletxea Perurena**, Elizondo eta Legasakoa, urriaren 18an.
Ramon M^a Zozaia Larralde eta **M^a Elena Fernandez Alvarez**, Lesakakoak, urriaren 25ean.
Jose Manuel Egokue Sobrino eta **Elena Apeztegia Elso**, Elizondo eta Iruñekoa, urriaren 11n.
Honesto Lopez Diaz de Cerio eta **M^a Inmaculada Pagazaurtundua Idiart**, Narbarte eta Gartzaingoa, urriaren 18an.
Manuel Martiarena Iriarte eta **M^a Soledad Casimira Pikabea Puebla**, Sunbilla eta Berakoa, urriaren 18an.
Enrique Juanena Ariztegi eta **Cristina Etxeberria Aldaia**, Oitz eta Irungoa, urriaren 25ean.
Josetxo Txoperena Matxikote eta **Amaia Zabaleta Erasun**, Igantzi eta Leitzakoa, irailaren 27an.
Jose Ignacio Garro Martinez eta **M^a Pilar Hernandorena Otxandorena**, Tolosa eta Eratsungoa, irailaren 27an.
Jesus Mari Otermin Onsalo eta **Sandra Gurutzarri Pellejero**, Aresokoak, urriaren 25ean.

JAIOTZAK

Pello Azpirotz Sustatxa, Berakoa, urriaren 2an.
Gorka Iribarren Gonzalez, Doneztekobekoa, urriaren 6an.
Joel Oronoz Inda, Lesakakoa, urriaren 7an.
Salvador Iriarte Ziaurriz, Elizondokoa, urriaren 10ean.
Iñaki Irazoki Ezeiza, Elizondokoa, urriaren 13an.
Itxaso Elizetxe Lekuona, Erratzukoa, urriaren 13an.
Jokin Maia Dagerre, Elizondokoa, urriaren 13an.
Iñaki Mendikoa Etxegarai, Elizondokoa, urriaren 9an.
Unai Bereau Mutuberria, Sunbillakoa, urriaren 23an.
Maite Arraztoa Lazkanotegi, Berakoa, urriaren 17an.
Xabier Arraztoa Lazkanotegi, Berakoa, urriaren 17an.

HERIOTZAK

Jose Angel Agirre Etxeberria, Zugarramurdikoa, urriaren 22an, 48 urte.
Joseph Subeltzu, Sarakoa, urriaren 19an, 67 urte.
M^a Luisa Kerejeta Barandiaran, Berakoa, urriaren 15ean, 84 urte.
Juana Etxeberria Mitxelena, Berakoa, urriaren 19an, 60 urte.
Isabel Larrea Arraras, Leitzakoa, urriaren 21ean, 89 urte.
Isabel Astibia Tirapu, Leitzakoa, urriaren 19an, 69 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitetz Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitetarako produktuez betea, emango dizugu.

Ex aiantzi familiaren liburuak!

IRUÑEKO KUTXA

BAZTAN FUNERARIA
 EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
 Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
 Tfnoak: 580373 • (908) 776176

JATETXEA
 Tfnoa: 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

MENDI OSTATUA
 Santiago 25 - ☎ 580313
 ELIZONDO

Maderas GOMEN

- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 58 06 45

OSKORRI *liburudenda*

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

☎ 592245 • Petriena • **ORNOZ-MUGAIRI**

BODEGAS ERRASTI, S.L.
 Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
 GETARIAKO TXAKOLIÑA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
 M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
 ☎ 58 02 78

Bertsolari Txapelketa Nagusia Berarat heldu zaigu azaroan

Final laurdenak jokatu dira dagoeneko, eta finalerdietan erabakiko dira zortzi onenak



Bertsolari haundiak kantuan aditu ahal izanen dira azaroaren 16an, Eztegarra frontoian.

Urriaren 11n Tolosan abiatu zenetik ia hilabete daramaki martxan Bertsolari Txapelketa nagusiak, eta azken laurdenetako saio guziak jokatuak dira dagoeneko. Joan den asteburu honetan Getxo eta Zarautzek hartu dituzte azken bi final laurdenak, eta handik atera dira finalurrekoetan lehiatu beharko duten 18 bertsolariak.

Finala oraindik urrun xamar gelditzen bazaugu ere (abendua 14an, Donostian) finalerdietako saio guziak azaroan ospatuko dira,

eta hoietako bat hurbil-hurbil subertu zaigu, gainera, Beran jokatu baina lehenbiziko kanporaketa, igande honetan ez, hurrengoan.

Egia erran, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusia ez da urtean zehar ospatzen diren bertso jaialdietako bat gehiago, eta hori ongi isladatzen du orainarteko saioetaragertu den ezohiko jendetzak. Dudarik gabe, Berako Eztegarra frontoia ere bete-bete egingen da azaroaren 16an, finalerako txartela eskuratzeko lehiari

ariko diren 6 bertsolariak aditu eta txalotzeko.

Berrikuntzak

Orain arteko txapelketen aldean, bi berezitasun nabarmentzen dira finalurretan, saioak arindu nahiez antolatzaileek hartu dituzten neurriak direla eta. Batetik, ordutegia aldatu dute, goiz eta arratsaldeko saioak izan beharrean arratsaldeko jokatuko den saio bakarrena mugatuko dira kanporaketak. Berakoa arratsaldeko 5etan hasiko da.

Bertze aldaketa nagusia bertsolari kopu-

Bertsolarien lana

Hiru finalurrekoetan guztira 324 bertso botako dute bertsolariek, eta 208 bertso, berri, finalean.

▽ Zortziko nagusian ofiziotan 3na bertso.

▽ Zortziko Itikian ofiziotan 3na bertso.

▽ Bakarka: Hasierako puntua emanda 2na bertso zortziko Itikian eta azkenurreko puntua emanda bertso bana (berria).

▽ Hamarreko Itikian ofiziotan 3na bertso.

▽ Ofiziotan sei puntuko 3na bertso.

▽ Kartzelako lana: 3na bertso kantatzeko gaia, neurri eta doinu librean. Saio bakoitzeko bertsolari bakarra pasatuko da zuzenean finalera eta bertzeak puntuen bidez.

ruan somatuko da, finalurrekoetan 6na bertsolariz osatuko baitira taldeak. Finalean, ordea, ohikoa den moduan 8 bertsolari ariko dira.

Beran Mikel Taberna izanen da bertsotarako gaia paratuko duena.

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen Topaketak

Hurrengo batean lasaiago egiteko modua izanen dugula jakinda ere, herenegun akautu ziren euskararen inguruko Topaketa hoiien balorazio tiki bat egitea eskatu diegu antolatzaileei, eta hauek adierazi digutenez arras positiboa da egiten duten lehenbiziko irakurketa hori. «64 lagunek egin du matrikula, nahiz saioetara 40 lagun agertu den batz-bertze, eta hizlariek jorrratutako gaiak hagitz interesgarriak suertatu dira, batez ere ohikoetatik ateratzen ziren ikuspegi desberdinetatik enfokatu zituztelako». Bakarren bat erratekotan UEMAr buruzkoa nabarmenduko lukete antolatzaileek. «euskarak herri ttikietan bizi duen kontradikzioari nola buelta eman erakutsi zigutelako Goierriko Zerain herriko adibidearen bidez».



Laburrak

Musika eta dantza tradizionalak

Munduko toki eta kultura desberdinetako musika eta dantza tradizionalak izanen dira ikusgai hiru igandez segidan, Elizondoko Arizkunenea aretoan. Joan den igandean Joseba Tapia eta Ruper Ordorikak *Zaharrak Berri* izeneko emanaldiarekin ideki zuten zikloa. Datorren igandean (azaroak 9), berri, *Tapan Group* en eskutik musika eta dantza indiarra ezagutu ahal izanen dugu, eta handik astebetara, azaroaren 16an, Madagascargo musika etniko ekarriko digu *Rakoto* bakarlariak. Emanaldi guziak, arratsko 8etan.

Udazken Kulturala

Bortzirietako Euskara Batzordeak udazkeneko giroa berotze aldera prestatu dituen ekitaldiek aurrera segitzen dute. Agendan sartu ditugu datozen bi asteetan izanen diren ekitaldiak.

Euskal Kantu Txapelketa

Euskal Kantu Txapelketaren XI. edizioari azaroaren 22an emanen zaio hasmenta, baina izena eman nahi duenak azaroaren 8a du azken muga, hau da, etzi. Beraz, apuntatzeko asmotan bazabiltza lehenbailehen deitu beharko duzu eskualdeko irratietarat. Telefonoak oroitaziko ditugu: Xorroxin Irratiarena 581226a, eta Karrape irratia, 610914a.

Lesakako gazteak, galdutako maila berreskuratu nahian

Joan den urtean Gipuzkoako ligan lehen maila galdu ondotik, aurten nahiko ongi hasi dira bigarren mailan Lesakako Beti Gazte taldeko jubenilak. Hau idazterakoan zazpi partiduko jokatu dituzte, lau irabazi eta hiru galduz. Hirugarrenak daude sailkapenean. Joan den urtean aritu ziren jolaskari aunitzekin batera, aurten kadetetik pasatutako bertze zenbait ditu eskura Iban Maia entrenatzaileak. «Ez bakarrik kadetetik pasatutakoak, oraindik ere kadete fitxa duten jokalariek batzuk jokatu ari dira jubeniletan eta maila hagitz ona mantentzen dute» dio joan den urtean infantilak eta aurten, lehen aldiz, jubenil taldea prestatzen duen entrenatzaileak.

Iaz galdutako maila berreskuratzea zaila izanen dute Beti Gaztekoek. Beraien multzoan zortzi talde daude eta bi lehenbizikoen artean sailkatu behar dira igoera fasea jokatzen. Honetan hamar taldek jokatuko dute eta lau lehenak lortuko dute lehen mailara goitza.

Astero hiru entrenamendu egiten dituzte eta jokalariek «dextente» erantzuten dutela dio Maia. «Batzuk gogo gehiagorekin etortzen dira, bertzeak gutxiagorekin, baina normalean posible dutenak etortzen dira». Halere, plantilla labur xamarra dute eta partiduetarako kadeteekin entrenatzen dutenak ere hartzen ditu Maia.



Jokalaria	Postua	Jaiotze E.	Herria
Haritz Arriola Capdequi	Atezaina	81-02-06	Sunbilla
Igor Maia Arakues	Atzelaria	81-08-06	Lesaka
Aiert Retegi Telletxea	Atzelaria	79-03-10	Igantzi
Jon Garro Alzuri	Atzelaria	80-03-09	Lesaka
Imanol Almandoz Ubiria	Atzelaria	80-08-11	Lesaka
Julen Zubieta Rodriguez	Atzelaria	80-06-01	Lesaka
Jon Iturbide Otxoteko	Atzelaria	81-01-01	Lesaka
Mikel San Sebastian Gaztelumendi	Atzelaria	79-01-11	Lesaka
Josu Almandoz Maritxalar	Erdilaria	79-01-09	Lesaka
Diego Martinez Garcia	Erdilaria	79-06-19	Lesaka
Imanol Txoperena Errandonea	Erdilaria	81-02-10	Lesaka
Iñigo Telletxea Etxeberria	Erdilaria	80-10-16	Igantzi
Ibai Mitxelena Maritxalar	Erdilaria	80-07-27	Lesaka
Angel Mari Cantero Torres	Erdilaria	81-08-14	Bera
Iker Sanchez	Erdilaria	81-03-15	Hondarribia
Joxe Mari Elgorriaga Almandoz	Aurrelaria	81-10-08	Lesaka
Mikel Ibarra Ibarra	Aurrelaria	80-01-06	Sunbilla
Karlos Etxeberria Napal	Aurrelaria	79-11-15	Doneztebe



Iban MAIA Entrenatzailea

«Igoera faserako sailkatzea lortu nahi dugu eta gero ikusiko da...»

Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

Hasieran ez genuen helburu zehatzik, taldea ateratzea bertzerik ez. Bai neretzat eta bai jokalarientzat maila berria zen. Denborarekin eta partiduekin ikusi dugu zerbait egiten ahal dela eta gure asmoa igoera faserako klasifikatzea da. Jokalariak ere ilusio horrekin ari dira. Gero, igoera lortzea hagitzez zailagoa

izanen da, baina saiatuko gara. **Nola definituko zenuke taldea?**

Talde hagitz langile eta borrokalaria da, zelai gainean dena uzten duena. Teknika aldetik ere batzuk ongi dabilta, batez ere gaztetxoak. Arazo bakarra, jende gutti garena da eta horregatik, kadetetatik jendea hartu behar izaten dugu. Akaso, fisikoki gehixeago egitea falta zaie, gehien bat gazteenei.

Klubaren datuak



Elkartearen izena:

Beti Gazte

Sorrera: 1940

Bazkideak: 800

Helbidea:

Beheko Plaza

31770 Lesaka

Tel.: 627558

Aurrekontua:

8.787.000 pezeta

Futbol zelaia:

Mastegi (1997)

Lehendakaria:

Salvador Iantzi

Sezioak:

Futbola (Preferente, 2. erregionala, jubenilak, kadeteak, infantilak, alebinak, benjaminak, areto-futbola), mendia, saskibaloia, xakea eta txirindularitza.

Jubenilak

Maila: 2. Jubenila

Iaz: 1. mailatik jautsi

Delegatua: Juanjo Guerrero.

Donato Larretxea nagusitu zen Nafarroako aizkolari txapelketaren finalean

- Lehia gogorra izan zuen Floren Nazabalekin
- Mikel Mindegia hirugarren postua eskuratu zuen

Urriaren 26an ospatu zen Leitzan Nafarroako 1. mailako aizkolari txapelketako finala. Frontoira 350 ikusle inguru hurbildu zen. Zubietako Antonio Jaunarena, Arantzako Donato Larretxea, Ezkurako Mikel Mindegia, Etxarri Arantzeko Floren Nazabal eta Olagueko Antonio Senosiain lehian ikustera.

Aizkolari bakoitzak 4 kanaerdiko, 60 ontzako beste 4 eta 2 oinbiko moztu behar izan zituen. Lehen enborra Floren Nazabalek bota zuen, Larretxeak baino 5 segundu lehenago. Bigarrena arantzarrek, Nazabalek baino 7 se-

gundu lehenago. Bi aizkolari hauen arteko lehia arrunt ikusgarria izan zen, enbor batetik bestera bata besteari aurrea hartzen baitzion. Honela izan zen 7. enborreraino. Zortzigarrenean Larretxeak hartu zuen aurrea 15 segunduko aldearekin eta Na-

zabalek etsitzea lortu zuen. Azken bi enborretan Larretxeak ia minutu bateko aldea aterazion Nazabali. Hirugarren posturako lehian, hasieran berdinduak ibili ziren Senosiain eta Mindegia, baina azkenean Ezkurakoaren esperientzia gailendu zen.

Nafarroako txapela laugarren aldiz jantzi du Donatok.
Artxiboa



DENBORAK ENBORREZ ENBOR						
Enbo.	Larretxea	Nazabal	Mindegia	Senosiain	Jaunarena	
54"	1'14"	1'09"	1'17"	1'22"	1'24"	
54"	2'22"	2'29"	2'40"	2'46"	3'09"	
60"	4'29"	4'28"	4'58"	4'50"	5'17"	
60"	6'58"	7'04"	7'20"	7'35"	7'59"	
72"	11'03"	11'18"	11'59"	12'21"	14'18"	
72"	15'34"	15'35"	16'53"	17'28"	20'24"	
60"	18'44"	18'43"	20'08"	21'34"	24'07"	
60"	21'29"	21'44"	23'05"	24'56"	27'38"	
54"	23'31"	24'22"	25'37"	27'27"		
54"	25'24"	26'36"	28'03"	30'01"	32'40"	

Ione Fagoagak bi domina lortu zituen Munduko Ehizi txapelketan

- Lesakarra hirugarrena izan zen bakarka eta bigarrena taldeka



Ione Fagoaga, 14 urteko lesakarra, bi dominekin etorri zen Kroazian jokatuak Munduko Ehiza txapelketatik. Ione, Latz zakurra-ekin batera aritu zen faisai ehizan, San Huberto modalitatean eta hirugarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean, bi ehiztari italiarren gibelatik.

Berekin batera, Espainiako selekzioan aritu ziren Modesta Irao-

Munduko txapelketan ere fin ibili da ehiztari lesakarra

la gipuzkoarra eta Zamorako Monica Novoa aritu ziren eta bosgarren eta zortzigarren postuak erdietsi zituzten. Honenbertez, Espainiako selekzioa bigarren izan zen taldeka.

Lesakarra gustora gelditu da Kroazian egindako lanarekin nahiz eta ehizarako egokitu zitaiaion lekua batera ona ez izan, «dena sasi eta larrez betea». Bidaiari dagokionez, «luzea eta nekagarria izan da. Kroazia leku polita, baina hotza da» dio Ionek.

BOITE *pronton*

❖ Lizuniagako lgoeran

Iruñeko Juan Zubietakorrikalaria nagusitu zen, Agustin Garcinuño eta Iñaki Lopetegiren aitzinetik. Nesken artean, Maika Ariztegiturendarra izan zen bizkorrena. Beteranoetan Angel Azpioleak eta junior mailan Gotzon Azpioleak irabazi zuten.

❖ Luis Vicente Otin

leitzarrak Telco.m Fina txirindulari taldea zuzenduko du datorren denboraldian. Aurten Plazaola taldeko zuzendaria izan da Luis.

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

DONEZTEBE

► Azaroaren 14an

Xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

UDAZKEN KULTURALA ETXALAR

► Azaroaren 7an

Hitzaldia: "Osasunari buruz". Arratsaldeko 7,30etan.

Julian Bereziartua.

► Azaroaren 8an

Txiste Afaria: Orioko Txiste kontalariek. Arratseko 9,30etan.

► Azaroaren 9an

Musika Tailerra izanen da haurrentzako, Patxi Hernandezekin. Arratsaldeko 4etan.

BERA

► Azaroaren 10ean

Hitzaldia: "Guatemala bidaia". Jon Sarasua, Kontxi Erro eta Amaia Antero. Arratsaldeko 7,30etan.

► Azaroaren 12an

Hitzaldia: "Alaskatik Tierra del Fuegoa bizikletan". Nandus. Arratsaldeko 7,30etan.

LESAKA

► Azaroaren 8an

Haurrentzako txontxongilo tailerra. Arratsaldeko 4etan.

► Azaroaren 15ean

Haurrentzako erreziklaia tailerra.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► Azaroaren 9an

Rolan-era joanen dira Baztango Mendigoizaleak, eta hurrengo astean, azaroaren 16an, Harritxurira, Eskisaroitik ateri eta bertan akituz ibilaldia.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 5.500 pta.
- Zerri gizona (95-100): 184 pta./kilo
- Zerramak: 110-115 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta/kg. Kanal
- Extra 520
- 1.koa 500
- 2.koa 490

- Urruxak: Pta/kg. Kanal
- Extra 550
- 1.koa 530
- 2.koa 510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze ttiikak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 25.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 38.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Donezteben feriak

Elizondoko feriak eta Beran Lurraren Eguna inoiz baino arrakasta handiagoz iragan berri diren honetan, Malerreka aldeko feria nagusiaren txanda ere ailegatu da, eta azaroaren 14an Doneztebeko karrika eta ostatuek (elkar ezagutzen baitugu) jendez gainezka eginen dute, seguru. Hori hala izan dadin, lana gogotik egin behar izaten dute urtero-urtero antolatzailerak, bisitariari ahalik eta egitarau erakargarriena eskeintzeko.

Goizean goizetik saltzailerak okupatuko dituzte herriko txoko guztiak, eta izanen da zer erosi (edo zer begiratu, bederen...) bazkalordua baino lehen. Eguerdian plazarat hurbiltzea gomendatzen dizuegu, bertso saioa izanen baita han.

Arratsaldeko 5etan etorriko da, halere, eguneko ekitaldirik politena, herri kirol jaialdia, alegia. Bertan Nafarroako hainbat txapelketa izanen dira jokoan. Bigarren Mailako Aizkolariena, kategoria bereko arpanlariena, eta emakumezkoen arpana txapelketa. Floren Nazabal eta Donato Larretxearen arteko desafioa ikusi ahal izanen da, azkenik.

LIBURUAK



«Heriotza mendebaldean eta Euskal Herrian»

Murgil Taldea
GAIK

Azkeneko TTIPI-TTAPAN agertu genuen erreportaiak-kanposantuen eta Heriotzaren ingurukoak-jakinmina piztu bazizun, *Murgil* ikerketa taldekoek argitaratu duten liburu hau ere gustoko izanen duzu. Lehenagotik ere, estraperloa, sorgiñak eta baleak gaitzat harturik, zenbait ikerketa egindakoak ditugu *Murgilekoak*, eta oraingotan Heriotza bezalako solasbide arantzatsua aukeratu dute, guz-

tion baitan dauden kezka, beldur eta tabuei aurre egin asmoz.

Liburuan bi atal bereizten dira; lehen zatian historiaurretik honat heriotzaren ikuspegia gizakiarengan nola aldatu den aztertzen da, eta bigarrena zientziaren begipuntuaren oinarritzen da.

Erabat harrিতuta utziko gaituzten hainbat jakingarri ikasiko dugu irakurketan murgildu ahala, eta ez uka gaia interesgarria denik!

JAKIN BEHARREKOAK

Zer arraio da estasia?

Entziklopediari estasia zer den galdetu eta "arima poztasun eta mirespen egoera sakon batean murgiltzea" dela erranen digu, eta urte-etan erlijioari lotua agertu bazaigu ere, bere adiera gaurkotu egin du orain aztergai dugun hitzak. Edozeini estasia zer den galdetu ezker, seguraski, droga... estimulagarria... pastilak... bezalako hitzak aipatuko dizkizu, baina estasiaren eraginez solasten bagara entziklopediako definizioa bera baliagarria izan daiteke.

Gu, oraingo honetan berderen, bigarren zentzu honek adierazten digun droga tipoa eta bere eragin nahiz ondorioak zehazten saiatuko gara, objetibotasunez, ahal den neurrian.

Hippietatik diskotekeroetara

Azken urte hauetan estasiaren kontsumoa biziki areagotu bada ere, ez da inondik inora droga berria, 1.912an asmatu baituzten alemandarrek, gosea kentzeko botika gisa. Handik 50 urtera, EEBBetako hippiek gogotik irentsi zuten kolore guztietako pastiletan



Dependentzia sikosoziala deitutakoa eragin dezake, hura gabe ongi sentitzeko, dibertitu eta bertzeekin erlazionatzeko ezina, alegia.

bilduriko pizgarri hau. Garaiak aldatu dira, eta gaur egungo estasi kontsumitzailerik ohikoenak direnek arraso itxura desberdina erakusten dute, halaber.

Dantzalekuetatik joaten den jendeaz ari gara. Izan ere, haiek dira ostiraletik igande ilunabar artio dantzaz jarriko dituen pilulak hartzearen zale haundienak. Baina ez dugu estereotiporik sortu nahi, eta erran behar dugu droga hau arras zabaldua dagoela gaur egun.

«Estasiarekin loturiko heriotza gehienak "bero kolpea" delakoari egotzi zaizkio».

Ondorio eta dependentziak

Estasiak takikardia, arritmia, hipertentsioa, aho idortzea, izerditzea, matelezu-raren kontrakzioa, antsietatea, dardariak... eragiten ditu momentuan, baina ez da segurua luzera zentzuteko neurotoxikotasuna sortzen duen. Hala ere, azpimarratzekoa da estasiarekin loturiko heriotza gehienak "bero kolpea" (nekea, zorabioak, dardariak...) delakoari egotzi zaizkiola.

Dependentzia fisikoa sortzen duenik gaur den egunerarte frogatu ez bada ere, depresioa, antsietatea eta bertze nahaste sikologikoa izateko arriskua haunditzen duela bai, baita dependentzia sikosoziala ere.

DISKAK



«Anari»

Anari

Esan Ozenki

Ttikitan pianoarekin hasi baldin bazen ere, gitara lagun duela eman du ezagutzerat bere burua kantagile azkoitiarrak; zehazkiago errateko, Esan Ozenkikoek hor nonbait bere emanaldi bat ikusi zutelarik sortu zen orain karrikaratu duten disko intimista honen hazia. Anari Alberdi, Tom Waits, PJ Harvey, Nick Cave, eta baita Euskal Herriko bertze zenbait

bakarleri haundirekin parekatu dute diskoa atera duenetik; Laboa, Ruper (bertakoen artean)... eta orokorrean arras kritika onak jaso ditu. Grabatzerakoan ondoan izan dituen batzuk aipatzekotan, hor dira Kaki Arkarazo (tekniko gisa), Strubell Dut (gitarra), Eneko Bap! (ahotsak)... Ah! ez atzendu abenduan Etxalarrenat heldu zaigula Anari.

AGENDA EGUNEZ EGUN

UDAZKEN KULTURALA

BERA

► **Azaroaren 10ean**
Hitzaldia: "Guatemalara bidai". Jon Sarasua, Amaia Antero eta Kontxi Erro.

► **Azaroaren 12an**
Hitzaldia: "Alaskatik Tierra del Fuegoa bizikletaz" Nandus.

AFARIAK

BERA

► **Azaroaren 8an**
Lizaso eta Murua bertsolariekin bertso afaria izanen da Agerra Mendi Taldearen egoitzan. Tfnoa: 6311130.

JARDUNALDIAK

BERA

► **Azaroaren 10etik 13rat**
Menopausiarik buruzko bigarren astearen barrenean, hitzaldi eta diapositiba emanaldiak burutuko dira egun hoietan zehar Berako Ricardo Baroja eskolan. Gaiak: Anatomia, Norberaren Zainketa Orokorra... Ordua: arratsaldeko 6ak.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► Urriaren 20tik 26ra

Bera, Narbarte, Lezaun, Urdazubi, Leitza, Goizueta.

► Urriaren 27tik azaroaren 2ra

Arantza, Doneztebe, Iturralde eta Goizueta.

► Azaroaren 3tik 9ra

Etxalar, Sunbilla, Lezaun eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU



ORONÓZ-MUGAIRE

Hirugarren pisua salgai,
Bertizko Jaureria bistatuz,
Ezinhobea. Hiru logela,
egongela, komuneta eta
trastelekua.
☎ 580804

BERA. Pisu baxua salgai. Eguzkitsua eta herri erdian. 70 m². ☎ 989-801323.

BERA. Pisu salgai, sukalde moldatua, jangela haundia, 3 logela, bainua eta aseoa. Igogailuarekin. Dena kanpoaldera begira, balkoi ederrekin. ☎ 631305.

IGANTZI. Pisu salgai, bigarren eskuko (7.000.000 pta). ☎ 637818 (gauetz).

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Agerra auzoan pisu mobleztatua errentan emanen nuke. ☎ 630557 (eguerdian).

IRUÑEA. Pisu alokatzen da San Nikolas karrika 29an, 3. pisua. ☎ 615124 (2etatik 4etara).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko Iruñean. ☎ 240969.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Bajera salgai, 23 m². Bittiria 37. ☎ 637938.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Lokal komertziala errentan emanen nuke, Legia karrikan. Akondizionatua eta komertzio bezala zabaltzeko prest. 30 m². ☎ 631429 (eguerdian).

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ALTZARIGILEA. Koxe Mari Aranburu. Lehengo moduko zurezko altzariak. Plazaidea etxea. ☎ 07-33-559542123 Sara.

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

LANA

301 ESKARIAK

Solfeo eta piano tituluak dituen musika irakaslea berelanaekin zerikusirik duen edozein lanetan ariko litzateke. Haur eta afizionatuentzako klase partikularrak barne. ☎ 943-635223 (Irun).

Neska batek lan eginen luke Donezteben edo inguruan, edozein lanetan. Bada esperientzia. ☎ 450103.

LANA

302 ESKAINTZAK

Txapista behar dugu Berako auto kontzesionario batean lan egiteko. Lehen mailako ofiziala behar du, Bancadan esperientziarekin. ☎ 631157.

Lan egiteko gogoia duten pertsonak bilatzen ditugu, Baztan-Bidasoa eta Leitzaiko zonaldean. Autoa izatea beharrezkoa da. Informazioa: ☎ 580167 (Milagos, gaueko 9,30etatik 10,30etara).

Neska behar dugu kamarrera gisa lan egiteko. ☎ 637807 edo 627517.

Euskaraz dakien emakumezkoa behar dugu adineko pertsona gau eta egun zaintzeko. ☎ 637034 edo 637347.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Opel Kadett GSI 2.0 salgai, 3 ate. 89koa, extrekin. 500.000 pta. ☎ 637059.

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Opel Astra TD
- Ford Fiesta XR2
- Citroen AX Haize Egokitua
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

NISSAN BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:

- Peugeot 309 NA-Y, Kadett GSI
- Nissan Terrano II NA-AJ
- Ford Fiesta 1.1
- Kotxe berrietan ofertak

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak

Iturilandeta. 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Audi SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak,
furgonetak eta 4x4ak
erosten dira.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Renault 11 GTD 1.6 salgai, 85ekoa. 150.000 pta.

☎ 637059 (Denda orduak).

Ford Escort XR 3i salgai. NA-O matrikula, egoera onean. ☎ 637504 (asteburuetan).

Citroen C-15 salgai, NA-AM matrikuladuna, diesel. ☎ 510558 (eguerdi edo arratsetan).

Lada Samara 1.500 salgai, SS-AM matrikuladuna. ☎ 453108.

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

Ehizi txakurra salgai, Griffon arrazakoa. Hiru urtekoa. 25.000 pta. ☎ 599061.

Esne behia salgai, 5 hilabete ernari eta esnealdi ederrarekin. ☎ 581023.

Bi katakume salgai, bi-hiru hilabeteak, txertatuak. ☎ 630595 (gauetan).

Katu pertsiarra salgai. ☎ 580249 - 580668 (Itziar).

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Zilarrezko lepokoa aurkitu dut urriaren 27an, astelehena, Elizondoko Santiago karrikan. ☎ 451742 (Lola).

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Esne tankea salgai, 200 litrokoa. Merke. ☎ 615016.

Esne tankea salgai, Manus markakoa eta 100 li-

trokoa. ☎ 581292.

Esne tankea salgai, 320 litrokoa. ☎ 615004 (eguerdian).

Egurrezko kaldera salgai. ☎ 514298.

Igeltsero lanetarako materiale guzia eta kamioia salgai. ☎ 908. 774487.

Wua-Wua salgai, Cry Baby (Jimmy Hendrix). ☎ 630317 (Joseba).

Hergon sukalde kalefaktorea salgai, eta 100 litroko LAPESA ur depositoa ere salduko nuke. ☎ 630920.

Teila zaharrak salgai. ☎ 592296.

Esne-kupoa salgai, 2.775 kilo. ☎ 637012 (gauetz).

Intxaur-landare autoktonoa salgai. ☎ 510227.

Gerezi landareak salgai. ☎ 635028 (9etatik aitzine-
ra).œ

Egurrezko salamandra erosiko nuke. ☎ 450056.

Josteko makina elektrikoa salgai. ☎ 450056.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Txipisiulpipiri: Baduzu ordua pixka bat formaltzeko, bestela igande arratsaldeko mutiko asko marikomioan bukatuko dute. Piztiak.

Pipiri: Nahiz eta munduari bira eman, ez dugu zu bezalako lagunik harrapatuko. Ez aldatu! Azpilkue-tako koadrila.

Haizea Erkizientzat: arras majua eta jatorra zara. Doneztebetik.

Berako Eliri: ez nuen zugandik hau espero.

Gartzaingo Francisca Organbideri zorionak, azaroren 25ean urteak eginen baititu. Egun zorionsua pasa dezala Gregorio senarra eta Francisco semearekin batera.

Legasako Zarranz, Aitor eta batez ere Kozko. Oso onak zaudete. Leitzako lagunak.

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ **631188**

ttipi-ttapa

Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez



Frankeo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezker, zuk bidalita baino erdi prezioa kostako zaizu.

Iparraldetik deitzeko 19-34-48- **631188**
Hegoaldetik deitzeko 948-



DONEZTEBEKO UDALAK

Jakinarazten du:

BOST ETXEEN ENKANTEA:

Doneztebeko Udalak bost etxeen enkantea jakinarazten du, plegu itxitari lotuaz, Leitzako errepidean dauden **Maisuen etxeak** alegia:

Etxe bakoitzak 91 m²ko katastroko azaleraren arabera eta enkantean lehiatzeko gutxienez lau milioi bostehun eta hamarmila seirehun eta hirurogeitalau pezetakoa (4.510.664) izanen da:

1.997ko urriaren 1ean hartutako udal-erabakian dagoen baldintza pleguarekin bat etorriaz.

INTERESATUEK:

Udal-bulegoetan, bulego ordutegian, ikusi eta aztertzen ahal dute.

Donezteben, 1997ko urriaren 8an
ALKATEA
Miguel SAN MIGUEL

EGUBERRIETAKO EROSKETAK MERKEAGO

TTIPI-TXARTELArekin

Erosi zeurea eta erabili!



Argazkiak berreskuratu nahi badituze, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Laura Mitxelena Arriada
lesakarrak 7 urte egin ditu azaroaren 22an. Zorionak Inigo, Josune, Uxo eta gurasoen partez.



Josune Mitxelena Arriada
lesakarrak 8 urte beteko ditu azaroaren 13an. Zorionak Inigo, Laura, Uxo eta gurasoen partez.



Nagore Eskudero Indakoetxea
goizuetarrak 14 urte bete ditu azaroaren 4an. Zorionak eta muxu bat. Familia.



Mikel Salaberria Mutuberria
goizuetarrak 3 urte beteko ditu azaroaren 7an. Zorionak Aritz eta gurasoak.



Iker Tainta Noblek 11 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak txapelund. Aita eta ama.



Joar Tainta Noblek 5 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak printzesa. Aita eta ama.



Maite Juanikotena Etxegarai
elizondarrak 33 urte bete ditu urriaren 26an. Zorionak alaba eta senarraren partez.



Rakel Amigo
beratarrak 22 urte beteko ditu azaroaren 14an. Zorionak zure bizilagunen partez.



Amaiak 30 urte bete ditu urriaren 22an. Zorionak tripa-haundi, baina orain egiazkoa. Zure lagun partetik. Agur amatxito.



Sonia Dorronsoro Arozena
doneztebarrak zorionak, urriaren 28an 9 urte bete dituelako. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Julen Aranburu Mitxelena
aurtiztarrari zorionak, azaroaren 11n urtea beteko du eta. Familia.



Igor Salinas Indakoetxea
lesakarrak azaoren 6an urtea bete du. Zorionak Olaia eta gurasoen partez.



Nahia Artieda
beratarrak 9 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat bere familiaren partez.



Zorionak Ezkurra-ko **Eustakio Mindegia**ri bere bigarren urteurrenean, urriak 14. Bere aitona, guraso eta anai-arreben partez.



Ezkurrako **Moioñori**, bere bigarren urtebetetzean, zorionak eta bi musu. Herrikoak.



Koldo Bengoetxea Alzaga
irundarrak 32 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak emaztea eta familiaren partez.



Koldo Apeztexea
goizuetarrak urriaren 15an bete ditu 18 urte. Zorionak bere familiaren partez.



Xabier Apeztexea
goizuetarrak urriaren 18an bete ditu 12 urte. Zorionak bere familiaren partez.



Olaia Olazar Mariezkurrena
elgorriarrak azaroaren 1ean 5 urte bete ditu. Muxu haundi bat Xabier eta gurasoen partez.



Aritz Telletxea
lesakarrak 6 urte egin ditu urriaren 16an. Zorionak familiaren partez.



Juanita Iraola
beratarrak urteak bete zituen urriaren 31n. Zorionak zure familiaren partez.



Karmele Arriada k 19 urte bete ditu. Zorionak azpikuetaarren partez. Kontuz txanpainarekin.



Itziar Abajo Etxegarai
iruidarrak 17 urte eginen ditu azaroaren 9an. Zorionak eta ibili formal. Elizondoko familia.



Itxaro Etxague Goia aranztarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 8an. Aunitz urtez amatxi-atautxi, guraso, Jon eta Mainerren partez.



Josune Iri-gosue Ursuegi
doneztebarrak 17 urte bete zituen urriaren 24an. Zorionak eta muxu bat gelako lagun partetik.



Izaskun Agirre Elizondo
beratarrak 12 urte bete zituen urriaren 30ean. Zorionak familiaren partez.



Tomas Goikoetxea
beratarrak 23 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak aita, ama eta amatxi-aren partez.



Irantzu Agirretxe Alzugarai
irundarrak 8 urte beteko ditu azaroaren 13an. Zorionak familiaren partez.



Julen Errandonea Martin
beratarrak 4 urte bete zituen urriaren 31n. Zorionak familiaren partez.



Julen Errandonea Martin
beratarrak 4 urte bete zituen urriaren 31n. Zorionak amatxi eta izebaren partez.



Bittor Korta Agirre
beratarrak urteak beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak Unai eta Anderren partez.



Iñaki Korta Agirre
beratarrak azaroaren 18an beteko ditu urteak. Zorionak Unai eta Anderren partez.



Eneko Esparza Chueca
azaroaren 23an beteko du urtea. Zorionak Iratxe, gurasoak, Fermina Luzio eta Xabierren partez.



Ane Larrainzar Ubiria Santiago de Chilekoak urtea beteko du azaroaren 22an. Zorionak Lesakako familia eta lagun partez.



Igor Retegi Bengoetxea
arraioztarrak 8 urte eginen ditu azaroaren 16an. Zorionak zure guraso eta Oiharen partez.



Josetxo Telletxea Urrutia
arraioztarrak urteak beteko ditu azaroaren 8an. Zorionak familiaren partez.



Unai Valverde Ugalde
urteak beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak Amaiaeren partez.



Iñaki Zabaleta
leiztarrak 3 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak zure familia eta Axunen partez.



Jennifer Zelaieta Lazkano
beratarrak urtea beteko du azaroaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Izaskun Maiz Leiza
aranztarrak 20 urte bete ditu azaroaren 3an. Zorionak Julen, Ion, Markel eta etxeokoen partez.



Mikel Jorajuria Galetx
iruidarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Markel Jorajuria Elizondo
aranztarrak 3 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Jon Alzuri Otxotekok 7 urte bete ditu azaroaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat bere familiaren partez.



Nekane Grazenea
Narbartekoari, zorionak azaroaren 28an 10 urte beteko dituelako. Bere familiaren partez.



Martin Grazenea
Narbartekoari, azaroaren 18an urteak beteko dituelako, zorionak bere familiaren partez.



Julene Maia Abasolak
azaroaren 13an 7 urte beteko ditu. Aunitz urtez, familiaren partez.



Maite Bertiz
narbartearrak 14 urte bete ditu azaroaren 3an. Zorionak berako lagun partez. Ongi pasatu!



Paula Apeztegia Loiarde
doneztebarrak 5 urte beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak familiaren partez.



Ibai Ortigosa
goizuetarrak 15 urte beteko ditu azaroaren 14ean. Zorionak zure ama, familia eta lagun partez. Egun ona pasa!



Kristina Lasarte
beratarrak 22 urte beteko ditu azaroaren 9an. Zorionak eta muxu bat zure familiaren partez.



Bera.
• Eguzki kafetegia salgai.
Gaineko etxeko etxebizitzak ere bai.



Elgorriaga. • Pisua, garaje eta ganbareekin salgai. Premiazkoa izateagatik, merke salduko dira.



Donamaria. • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.

Beran edo Lesakan pisuak hartuko genituzke errentan, konfidantzazko lagunentzat, ongi ordaintzeko.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77.86.53 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



Mugairi. • Pabiloi industrialak salgai. Prezioa: m²a 43.000 ptatik goiti.



Elizondo.
• Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai. 6.000.000.

Etxeak egiteko lur erabilgarriak:

- Mugaire: 500 m²
- Donamaria: 6.000 m²
- Doneztebe: 1.700 m²

Belategiak:

- Oitz: 10.000 m²



Bera. • Matxako ostatuaren gainean, bigarren pisua salgai, erabat berritua. Saltzeko premia handia.



Igantzi. • Lehenbiziko pisua salgai. Berri berria. 11.000.000.

Errentan emateko pisuak:

- Donezteben
- Narbarten
- Legasan

Bordak erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



Etxalar. • Herriatik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



Bera. • Etxe berria salgai. 3.000 m². Suspela auzoan.



Narbarte. • Pisua salgai.

DONEZTEBEko sarreran ☎ 948.450400

AMAIUR



**Prezioa
zuk jarri
sukaldea
guk jarriko dizugu**

EHIZARI BURUZKO

V. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Baztan-Bidasoako 19 jatetxek eskainiri
EHIZARI buruzko V. Jardunaldi Gastronomikoa
izanen dira Azaroaren 7tik 30a arte

Usoa, basurdea, oreina
erbia edo oilagorral
toki garrantzitsu
betetzen dute gur
sukaldaritzan
Baztan-Bidasoan
menu goxo ba
dastatzeko
ezinbesteko
aukera daukazu

1.500 eta 4.000 Pta
arteko menuak
(ardoa eta BEZ kanpo)



Dena den,
jaketxe guztiek beren ohiko
karta eta zerbitzuak eskainiko
dituzte.

LAGUNTZAILEAK

Nafarroako Gobernu
Industria, Merkataritza,
Turismo eta Lan
Departamentuak

Cederna-Garalur Elkartea

ANTOLATZAILEA



JATETXEA

ALMANDOZ

Beola. 58 50 02

ARANTZA

Burlada. 63 40 27

BERA

Matxiarena. 63 00 33

Zalain. 63 11 06

DONAMARIA

Donamariko Benta. 45 07 08

DONEZTEBE

Amezti. 45 00 28

Belarra. 45 03 06

ELGORRIAGA

Hilarion. 45 00 03

ELIZONDO

Eskisaroi. 58 00 13

Txokoto. 58 03 49

IGANTZI

Hostal Igantzi. 63 75 02

La Villa. 63 72 90

IRURITA

Olari. 45 22 54

Taberna del Fotógrafo. 45 20 87

LESAKA

Casino. 63 71 52

Hotel Bereau. 62 75 09

Koxkonta. 62 75 19

OIEREGI

Hotel Mugaire. 59 20 50

URDAZUBI

Indiano-Baita. 59 90 21

